

2025EKO URTARRILAREN 8TIK AURRERA APLIKATZEKO IZANGO DEN BERTSIOA

NICKEL PARTIKULARRAK - BALDINTZA OROKORRAK ETA TARIFAKOAK

□ NICKEL kontua Financière des Paiements Électroniques (“FPE”) akziokako sozietate sinplifikatuak, Espainiako sukurtsala, eskaintzen duen zerbitzua da. Madrileko merkataritza-erregistroan erregistratuta dago, 39762. liburukia, 71. folioa, 1. inskripzioa, M-706517. orrialdea, eta helbide soziala Paseo de los Melancólicos 14A, 28005 Madrid da. Zuzendari nagusiak ordezkatzzen du.

FPE 16598 R zenbakia duen baimendutako ordainketa-erakundea da, eta *Autorité de Contrôle Prudentiel et de Résolution* (Zuhurtziazko Kontroleko eta Ebazpeneko Agintaritza, 4 Place de Budapest, CS 9245 75436 PARIS CEDEX 09) erakundearen eta Espainiako Bankuaren gainbegiratzearen mende dago. FPE Espainiako sukurtsala 6893 zenbakiarekin erregistratua dago Espainiako Bankuaren Ordainketa Erakundearen Erregistro Berezian.

□ NICKEL kontua zorpekorik onartzen ez duen, eskudirua sartu eta ateratzeko eta transferentziak egin eta jasotzeko aukera ematen duen, eta ordainketak helbideratzeko aukera ere ematen duen ordainketa-kontua da. NICKEL kontuak Mastercard® txartel bat du, eskudirua ateratzeko eta saltokietan edo urrutitik erosketak ordaintzeko aukera ematen duena, jarraian azalduko diren baldintzen arabera.

□ Ordainketa-zerbitzuen esparru-kontratua (hemendik aurrera, “**Kontratua**”) honako baldintza orokor eta tarifako hauek (eranskinak barne) eta NICKEL kontu bat irekitzeko eskatzeko inprimakiak osatzen dute.

Baldintza orokor eta tarifakoek NICKEL kontuaren funtzionamendua azalduko dute, baita NICKEL kontua irekitzen denetik ixten den arte izango dugun harremana ere.

Baldintza orokor eta tarifakoen bertsio hau 2025eko urtarrilaren 8tik aurrera aplikatzekoa izango da.

1. NICKEL KONTUA	4
1.1. NICKEL kontuaren definizioa	4
1.2. Nola ireki NICKEL kontu bat	5
1.3. Uko egiteko eskubidea	6
2. NOLA ERABILI NICKEL KONTUA	6
2.1. NICKEL kontua Interneten eta mugikorrean	6
2.2. NICKEL kontuak ez du zorpekorik onartuko	7
2.3. NICKEL kontua pertsona bakar batek erabili eta kudea dezake	8
2.4. NICKEL kontu bakarra laguneko	9
2.5. Ordaintzeko eragiketak gauzatzea eta aurkaratzea	9
2.6. NICKEL kontu batean eragiketak erregistratzea: balio-data	11
2.7. Urteko kuota (begiratu ere bai: 1. eranskina. “Tarifen baldintzak eta mugak”)	12
2.8. Ordainketa-txartelaren aurrebaimena	12
3. NOLA ORDAINDU ETA ORDAINKETAK JASO NICKEL KONTUAREKIN	13
3.1. NICKEL kontuaren txartelak: NICKEL txartela, NICKEL PREMIUM txartela, MY NICKEL txartela eta NICKEL METAL txartela	13
3.2. Transferentziak	25
3.3. Helbideratutako zordunketak	28
3.4. Ordainketak kontu batean banku- edo ordainketa-txartelaren bidez	29
4. INFORMAZIO ERABILGARRI GEHIAGO	30
4.1. NICKEL kontu bat bahitzea	30
4.2. Baldintza orokor eta tarifakoen eta zure egoera pertsonalaren aldaketa	30
4.3. Zordundutako kopuruen ordainketa zatikatua	31
4.4. NICKEL kontu bat ixtea	31
4.5. Jarduerarik gabeko kontuak	32
4.6. Eramangarritasun finantzarioa	32
4.7. Webgunearen bezeroaren guneko edo NICKEL mugikorrerako aplikazioko erabilgarritasun eza	32
4.8. Diru-zorro elektronikoak	33
4.9. Sekretu profesionala	33
4.10. Datu pertsonalen babesa	34
4.11. Bezeroaren arretarako zerbitzua	35
4.12. Kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako borroka. Nazioarteko zigorrak	36
4.13. Aplikatzekoa den legeria	37
1. eranskina – NICKEL PARTIKULARRAK - TARIFEN BALDINTZAK ETA MUGAK	38
2. eranskina - UKO EGITEKO INPRIMAKIA	42

1. NICKEL KONTUA

1.1. NICKEL kontuaren Definizioa

“NICKEL kontua” da:

□ Ordainketa-kontua:

- eurotan dago, ez du zorpekorik onartzen eta ordainketa-txartel bakarra lotuta dauka (“NICKEL txartela”, “NICKEL PREMIUM txartela”, “MY NICKEL txartela” edo “NICKEL METAL txartela”, hemendik aurrera, oro har horietako edozein, “**Txartela**”). Automatikoki baimenduko da eta zorra zuzenean eskuragai egongo da “**konexioa duten eragitetarako**” (NICKEL kontuan eskuragai dagoen saldoa kontsultatzeko aukera ematen duen konexio teknikoarekin egindako eragiketak), edo zeharka eskuragai egongo da “**konexiorik gabeko eragitetarako**” (NICKEL kontuan eskuragai dagoen saldoa kontsultatzeko aukera ematen duen konexio teknikorik gabe egindako eragiketak).
- pertsona fisiko bakar batentzat da, bakarrik pertsonalki erabiltzeko, eta ez da lanbide-helburuetarako erabili ahal izango;
- kontuaren titulartasuneko ziurtagiri batek identifikatuta eta aitortuta dago;
- aukera ematen du:
 - ordainketak jasotzeko (adibidez, diru-sarrerak, dirulaguntzak, diru-itzultzeak);
 - NICKEL puntuetan eskudirua sartzeko eta ateratzeko;
 - kutxazain automatikoetan eskudirua ateratzeko;
 - transferentziak egiteko;
 - ordainketa-txartel bidezko ordainketak, helbideratzeak egiteko.

□ “**Webgunearen bezeroaren gunea**”: zerbitzu segurua (isilpekoak diren erabiltzailea eta pasahitza eta “**autentifikazio indartuko gailua**” izenekoa erabiliz,

2.1.“NICKEL kontua Interneten eta mugikorrean” atalean zehazten den moduan), Interneten edozein unetan sar zaitezkeena <https://nickel.eu> webgunearen bidez. Bezeroaren gune seguru honetan, zure NICKEL kontuaren mugimenduak kontsultatu ahal izango dituzu, konexiorik gabeko eragiketak barne, zure kontuaren laburpenak eta kontuaren titulartasuneko ziurtagiriak kontsultatu, inprimatu eta deskargatu, urteko kuotaren aitortpenak egin, jarraibideak eman (transferentziak, mugak aldatu...), alertak programatu, zure datu pertsonalak eguneratu, zure galderen erantzunak lortu edo gure bezeroaren arretarako zerbitzuarekin harremanetan jarri ahal izango zara.

□ Apple enpresaren App Store plataforma ofizialean edo Google enpresaren Google Play Store plataforma ofizialean deskarga daitekeen eta iOS edo Android sistema eragilearen bertsio berria duen telefono adimendun batean erabil daitekeen mugikorrerako aplikazio bat (“**NICKEL mugikorrerako aplikazioa**”). Aipatutako plataformek zehaztuko dute eskatutako sistema eragilearen gutxieneko bertsioa. Aplikazio seguru honetan, zure NICKEL kontuan erregistratutako eragiketak kontsultatu ahal izango dituzu, konexiorik gabeko eragiketak barne, zure kontuaren laburpenak kontsultatu, inprimatu eta deskargatu, kontuaren titulartasuneko ziurtagiria partekatu, jarraibideak eman (transferentziak, mugak aldatu...), alertak programatu, zure datu pertsonalak eguneratu, zure galderen erantzunak lortu edo gure bezeroaren arretarako zerbitzuarekin harremanetan jarri ahal izango zara.

□ SMS bidezko informazioa eskatzeko aukera, batez ere NICKEL kontuaren saldoa, azken mugimenduen zerrenda, konexiorik gabeko eragiketak barne, edo kontuaren titulartasuneko ziurtagiria, edo sartu diren transferentziak, hurrengo ordainagirien zordunketa-data, edo Espainiatik kanpo edo urrutitik Interneten bidez edo telefonoaren bidez egindako eragiketak zuri jakinarazteko aukera.

- “NICKEL bezeroaren arretarako zerbitzurako” telefono bidezko sarbidea, 917 877 117 zenbakian.
- Telefono bidez, NICKEL mugikorrerako aplikazioaren bidez edo <https://nickel.eu> webgunearen bidez txartelak blokeatzeko zerbitzu baterako sarbidea, txartela edo horren datuak galdu, lapurtu edo iruzurrez erabili badira.

Ez dugu inbertsioko ez zerbitzurik ez produkturik eskaintzen edo merkaturatzen (adibidez, inbertsio-funtsak).

Finantza-inbertsio bat egiteko baimentzen dituzun ordainketen erantzule osoa zara, bai ohiko inbertsio delakoak badira (adibidez, ondasun higiezinak, baloreak, diru-merkatuko tresnak), bai ohiz kanpoko inbertsio delakoak badira (dibisak, aukera bitarrak, kriptoa-ak eta beste edozein bitarteko, hala nola metal preziatuak, artearen merkatua, bitcoin-ak, ardoak eta likoreak edo lur arraroak).

1.2. Nola ireki NICKEL kontu bat

NICKEL kontu bat irekitzeko baldintzak honako hauek dira:

- Espainian zerga-egoitza edukitzea (horrez gain, beste zerga-egoitza bat eduki daiteke EBko edo EMLEko herrialde batean);
- pertsona fisikoa izatea;
- adinez nagusia izatea;
- jarduteko gaitasuna izatea;
- telefono mugikor pertsonala izatea;
- Internetarako sarbidea izatea, sistema eragile eguneratu batekin.

NICKEL kontua ireki eta mantenduko da atzerriko finantza-harremanei, bahiketei eta ustelkeriaren, kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako borrokari aplikatu beharreko legeria betez, Espainian eta zuk ematen dizkiguzun eragiketen jarraibideak guztiz edo zati batean betetzeak eragiten dien herrialdeetan indarrean dagoena.

NICKEL erakundeak zure nortasuna egiaztatzeko legezko eta arauzko betebeharrak bete ahal izateko, nortasun-agiri original eta baliozkoa aurkeztu beharko duzu.

Hala badagokio, egiaztapen gehigarrien mende jarri ahal izango dugu NICKEL kontuaren behin betiko aktibazioa (iruzurra saihesteko). Egiaztapen horiek gehienez hamabost (15) egun beharko dituzte, eta epe horretan NICKEL kontuaren zerbitzuak mugatuak izango dira: edozein kontu berri aplikatu dakizkiokeen ohiko mugez gain, 1. eranskinean (“Tarifen baldintzak eta mugak”) ezarritako beste muga batzuk ezarriko dira.

1.3. Uko egiteko eskubidea

Kontratua sinatu eta hamalau (14) egun naturaleko epean uko egiteko eskubidea duzu, inolako arrazoirik eman behar gabe eta inolako zigorririk jaso gabe.

Eskubide hori erabiltzeko, uko egin nahi duzula jakinarazi behar diguzu inolako zalantzarik gabeko adierazpen baten bidez, paperean edo beste euskarri iraunkor batean (posta arruntaren bidez bidaliz, kontratuari erantsitako uko egiteko inprimakian adierazitako helbidera, edo webgunearen bezeroaren gunearen edo mugikorrerako aplikazioaren bidez), hamalau (14) eguneko epea amaitu baino lehen. Nahi izanez gero, honekin batera doan uko egiteko inprimakiaren eredu ere erabil dezakezu, eta inprimakian adierazitako helbidera itzuli. Uko egiteko eskubidea erabiltzea doakoa da, posta-gastuak izan ezik. Uko eginez gero, kontratu osoa bertan behera utziko da, baita NICKEL kontuaren funtzionamenduari lotutako edozein produktu edo zerbitzu ere.

Uko eginez gero, hala badagokio kontratuari jarraituz jasotako kopuru guztiak itzuli beharko dizkiguzu, ahalik eta azkarren eta, gehienez ere, uko egitea jakinarazi eta hogeita hamar (30) eguneko epean. Guk ere gauza bera egingo dugu jakinarazpen hau jaso eta hogeita hamar (30) eguneko epean.

Uko egiteko epean kontratua zuzenean betetzeko eskatu ahal izango duzu, uko egiteko eskubideari uko egin gabe. Zuk baimena eman ezean, kontratua ezin izango da gauzatzen hasi.

2. NOLA ERABILI NICKEL KONTUA

2.1. NICKEL kontua Interneten eta mugikorrean

Bezeroaren gunera sartzean (webgunearen bezeroaren gunea edo NICKEL mugikorrerako aplikazioa) erregistratutako azken mugimenduak kontsultatu (begiratu 3. atala, "*Nola ordaindu eta jaso ordainketak NICKEL kontuarekin*") eta azken hamar (10) urteetan igorritako NICKEL kontuaren laburpenak inprimatu eta deskargatu ahal izango dituzu.

NICKEL kontuaren laburpenak hileroko igortzen dira, eta haietan xehatuta agertzen dira hilabetearen mugimendu guztiak. Horri esker, eragiketen datak eta azalpena, zenbatekoa eta jasanarazitako tarifak egiaztatu ahal izango dituzu.

Urte bakoitzeko urtarrilean, gastuen urteko laburpena jasoko duzu (formatu elektronikoa), kontuaren laburpenarekin batera. Horretan, aurreko urte naturalean zehar zure NICKEL kontua kudeatzeagatik kobratutako gastu guztiak zerrendatuko dira: kontua mantentzeko urteko kuota, transferentziak, ateratzeak, etab.

Zure NICKEL kontuaren laburpenak inprimatzea eta dagokion igorpenetik kontatzen hasita bost (5) urtez gordetzea gomendatzen dizugu.

Autentifikazio indartuko gailua edukitzeko beharra

Zure NICKEL kontura bezeroaren gunearen bidez (webgunearen bezeroaren gunea edo NICKEL mugikorrerako aplikazioa) sartu ahal izango zara Internetarako konexioa duen edo iOS edo Android sistema eragile eguneratu bat eta Internetarako konexioa dituen ordenagailu bat, tableta bat edo telefono mugikor bat ("*smartphone*" bat) erabiliz.

Mantentze- edo eguneratze-lanak egiten ari ez badira, asteko zazpi (7) egunetan eta eguneko hogeita lau (24) orduetan sartu ahal izango zara NICKEL kontura.

Zure NICKEL kontura modu seguruan sartzeko, autentifikazio indartuko gailu bat erabili behar duzu. Gailu horrek, erabiltzailearen izenaz eta pasahitzaz gain, zure eskura jarri dugun edozein gailu ere izango du.

Autentifikazio indartuko gailu oro guztiz pertsonala eta konfidentziala da, eta ez da inola ere zabaldu behar.

Autentifikazio indartuko gailu bat erabiltzeak aukera ematen du titularraren NICKEL konturako sarbide segurua ezagutzeko eta autentifikatzeko.

NICKEL puntuak bidaliko dizu zure erabiltzailea NICKEL kontua irekitzeko eskaera egiten den unean.

Zure bezeroaren gunera (webgunearen bezeroaren gunera edo NICKEL mugikorrerako aplikaziora) lehen aldiz konektatzen zarenean, erabiltzailearen izena eta abizena sartu beharko dituzu, eta SMS bidez erabilera bakarreko kode bat bidaliko dizugu NICKEL kontua irekitzeko prozesuan eman zenigun telefono-zenbakira, pasahitza sor dezazun. Aurrerago aldatu ahal izango duzu telefono-zenbakia.

Zure bezeroaren gunera (webgunearen bezeroaren gunera edo NICKEL mugikorrerako aplikaziora) sartzeko beharrezkoa den autentifikazio indartuko gailua zenbait eragiketa egiteko ere erabili ahal izango da, esate baterako, SEPA transferentziaren onuradun berri bat gehitzea, zure helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia aldatzea, kontuaren titulartasuneko ziurtagiria igortzea, zure sartzeko kodeak edo zure mugak aldatzea, edo txartela eskatzea edo aktibatzea.

Autentifikazio indartuko gailuaren galera edo iruzurra

Erabiltzailearen izena edo pasahitza galduz gero, edo haiek iruzurrez erabili direla (usurpazioa) susmatuz gero, berehala jakinarazi beharko diguzu eskura dituzun bitarteko guztiak erabiliz (telefonoz, harremanetarako inprimakiaren bidez, <https://support.nickel.eu/hc/es/requests/new>, eta abar), zure NICKEL konturako sarbidea blokea dezagun. Erabiltzaile eta pasahitz berriak emango dizkizugu berehala.

Era berean, erabiltzaile edo pasahitz oker bat hiru aldiz sartzen bada, edo NICKEL kontua denbora-tarte batez desaktibatuta egon bada, edo NICKEL kontuaren segurtasuna zalantzazkoa dela edo arriskuan egon daitekeela uste badugu, zure NICKEL kontua blokea dezakegu.

Zure konturako sarbidea eteten bada, edozein bitartekoren bidez informatuko zaitugu eta arrazoiak jakinaraziko dizugu, segurtasuneko arrazoiengatik edo legezko debekuagatik izan ezik.

Zure NICKEL konturako sarbidea berrezarriko da etetea eragin duten arrazoiak desagertzen diren unetik.

Kokapen edo gailu berri batetik saioa hasteko saiakera bat ikusten dugunean, NICKEL kontua babesten lagunduko dizugu mezu elektronikoa bat bidaliz edo telefonoz zurekin harremanetan jarri, zure NICKEL konturako sarbidea berrezartzeko.

2.2. NICKEL kontuak ez du zorpekorik onartuko

Ordainketak, transferentziak, eskudiruko ateratzeak edo helbideratzeak egin ahal izateko, nahikoa saldo izan behar duzu NICKEL kontuan.

Inola ere ez duzu saiatu behar zure NICKEL kontuan ageri den saldoa baino zenbateko handiagoa ordaintzen edo ateratzen, zordunketa zein kreditu bidez; bestela bere funtzionamendua blokeatuko duzu edo kontua berehala ixtea eragingo duzu iruzurra edo gehiegikeria errepikakorrak edo jarraituak egonez gero.

Beraz, ordainketak egin edo eskudirua atera aurretik, ziurtatu beharko duzu zure NICKEL kontuak eragiketa horiei aurre egiteko funts nahikoak dituela, zuk alde aurretik baimendutako eragiketak direnean ere bai (adibidez, transferentzia geroratuak, helbideratutako ordainagirien ordainketa edo konexiorik gabeko eragiketak).

NICKEL kontuak ez du zorpekorik onartuko. Egoera horren aurrean, honako hauek egin beharko genituzke:

- konexioa duten eragiketen kasuan: ordaintzeko edo eskudirua ateratzeko eragiketak atzera botatzea, baldin eta ordainketa edo ateratzea baimentzeko eskaera aurkezten den unean saldoa ez bada nahikoa osorik likidatzeko.
- konexiorik gabeko eragiketen kasuan: zure NICKEL kontuaren zordunketako eragiketa guztiak blokeatzea, kontuaren saldoa nahikoa ez bada aurreko hilabetean egindako konexiorik gabeko eragiketen zenbateko osoa estaltzeko (beti hogeita (20) euroko baimendutako hileko zenbatekoaren mugaren barruan), zure NICKEL kontuan saldo positiboa berrezartzeko edo zeroan uzteko (0) nahikoa den zenbateko bat sartu arte.

Aipatutako betebeharrerako bat, gutxienez, betetzen ez bada, zenbateko finko bat atera ahal izango dugu NICKEL kontutik, behin edo hainbatetan, indarrean dauden tarifen baldintzen arabera (1. eranskina, "*Tarifen baldintzak eta mugak*"), zure kontuaren edozein zordunketako eragiketa blokeatu, zor diren zenbatekoak berreskuratzeko behar diren bitarteko guztiak erabili edo NICKEL kontua itxi ahal izango dugu. Zure NICKEL kontuak ez badu saldo nahikorik zor duzun kopuru osoa ordaintzeko, partzialki kenduko da saldo erabilgarriaren zenbatekoraino, eta kenketa gehigarri bat edo gehiago egingo ditugu zure NICKEL kontuaren saldoak zor den zenbateko osoa ordaintzea ahalbidetzen duenean.

Salbuespen gisa, gerta daiteke kontuaren saldoa baino zenbateko handiagoa izan dezaketen eragiketa bat edo batzuk egin behar izatea. Saldo negatiboko ohiz kanpoko egoera honetan, diru-sartze bat egin beharko duzu berehala NICKEL kontuan saldo positiboa berrezartzeko edo zeroan uzteko. Saldo negatiboa onartzea ezin da jo zure aldeko kredituko eskubidetzat.

2.3. NICKEL kontua pertsona bakar batek erabili eta kudea dezake

NICKEL kontu bakoitzak erabiltzaile bakarra izan dezake.

Ezin izango du beste batentzako funtsik jaso, indarrean dagoen araudiak baimendutako kasuetan izan ezik eta betiere behar diren frogak ematen badizkiguzu.

Ezin izango zaio notario-ahalorderik eman beste bati NICKEL kontu bat erabiltzeko eta kudeatzeko. Zure NICKEL kontuan egiten diren eragiketa guztien erantzulea zu zeu izango zara, adingabeentzat ezarritakoari kalterik egin gabe.

2.4. NICKEL kontu bakarra laguneko

NICKEL kontu bakarra ireki daiteke laguneko, eta beste kontu bat irekitzeko edozein ahaleginak gure kontratuzko harremanak etetea ekarriko du.

2.5. Ordaintzeko eragiketak gauzatzea eta aurkaratzea

2.5.1. Iruzurrak saihestea datu pertsonalen segurtasuna mantenduz

□ Zure segurtasuneko datu pertsonalizatuak (erabiltzailea, pasahitza, erabilera bakarreko kodeak) guztiz isilpekoak dira eta arrazoizko neurri guztiak hartu behar dituzu segurtasuna mantentzeko. Zuk bakarrik erabili behar dituzu NICKEL kontura sartzeko eta hura erabiltzeko.

Datu horiek erabiltzearen erantzule osoa zara, eta NICKEL kontuan hasitako eragiketa guztien, emandako jarraibide guztien eta, oro har, datu horiek erabiliz NICKEL kontuan gertatzen diren egintza edo aldaketa guztien egiletzat hartuko zaizu.

Ahoz, idatziz zein Internet bidez (zure arretarako mezu elektronikoaren bidez, besteak beste), inork ez du zure segurtasuneko datu pertsonalizatuak eskatzeko baimenik. Datu horiek zuk zeuk bakarrik erabili behar dituzu, NICKEL kontura sartzeko.

Beste bati zure segurtasuneko datuak jakinaraztea zure arduragabekeria larria izango da.

□ Beste baten telefono-dei bat, SMS bat edo mezu elektronikoa bat (non edozeinek NICKEL erakundearen langile edo hornitzaile dela esan dezakeen) jaso ondoren, eskatu ez duzun eragiketa bat (adibidez, onuradun bat gehitzea) egiteko kode bateko eskaera bat jasotzen baduzu, ez egin kasurik eta zuzenean jakinaraz iezaguzu eskura duzun edozein bideren bidez [telefonoa, harremanetarako inprimakia (<https://contact.nickel.eu>)], zure NICKEL kontuaren sarbidea blokea dezagun. FPE erakundeak berehala emango dizu pasahitz berri bat.

Erabilera bakarreko kodea edo eskatu gabe eman zaizun beste edozein segurtasuneko datu pertsonalizatu jakinarazteagatik onuradun berri bat erregistratu ahal izatea zure arduragabekeria larria izango da.

□ Edozein egoeratan, eta zure NICKEL kontua iruzurrez erabiltzen dela saihesteko, etengabe zaindu behar duzu NICKEL kontua eta, horretarako, konpromisoa hartzen duzu aldizka honako hauek kontsultatzeko eta egiaztatzeko:

- kontuan erregistratutako eragiketak,
- onuradunen zerrenda,
- NICKEL kontuaren jardura.

Susmagarria iruditzen zaizun edozein eragiketa berehala jakinarazteko konpromisoa hartzen duzu, eskura duzun edozein bideren bidez: telefonoa, harremanetarako inprimakia (<https://contact.nickel.eu>) eta abar.

2.5.2. Ordaintzeko eragiketak gauzatzeko ukatzea eta blokeatzea

□ Ez dugu prozesatuko saldo erabilgarria gainditzen duen zure kontuaren zordunetako eragiketa oro.

□ Eskubidea dugu NICKEL kontuaren kredituko edo zordunetako eragiketa bat aldi baterako edo behin betiko blokeatzeko NICKEL kontua baimenik gabe edo iruzurrez erabiltzen ari dela jotzen dugun unetik edo zure kontuaren saldoa ez bada nahikoa zor zaizkigun zenbatekoak kitatzeko edo, bestela, berrogeita bost (45) egun naturaleko epe jarraituan zeron (0) geldituko balitz.

Blokeatzen bada, edozein bitartekoren bidez informatuko zaitugu eta arrazoa jakinaraziko dizugu, segurtasuneko arrazoiengatik edo legezko debekuengatik izan ezik.

Kredituko edo zordunetako eragiketa desblokeatuko dugu blokeoa eragin duten arrazoiak desagertzen diren unetik.

2.5.3. Baimendu gabeko ordaintzeko eragiketak

□ Transferentzia bidezko ordaintzen, txartelaren eta helbideratzeen kasuan, eragiketak behar bezala gauzatzeko arduradunak gara eta dagokion zenbatekoa onuradunaren kontuan ordaintzera behartuta gaude, bere jarraibideei jarraituz.

Eragiketa baimendu ez baduzu, aginduaren emaila zaren aldetik, horren berri izan ondoren eragiketaren zenbatekoa itzuliko dizugu, indarrean dagoen legezko mekanismoaren arabera.

Hala ere, dirua itzuli eta gero egiaztatzen badugu transakzioa benetan baimenduta zegoela edo zure aldetik iruzurra edo zabarkeria egon zela, eskubidea dugu bidegabe egindako itzultzearen zenbatekoa baliogabetzeko.

Ez duzu galerarik izango baimendu gabeko ordaintzeko eragiketak honela egin badira:

- zure txartelaren isilpeko kodea edo segurtasuneko datu pertsonalizatuak erabili gabe; edo
- txartelaren lapurreta edo galera antzeman izan baino lehen.

□ Nolanahi ere, baimendu gabeko eragiketei lotutako galera guztiak jasango dituzu baldin eta galera horiek zure aldetik iruzurrezko jokabide baten emaitza badira edo, nahita edo zabarkeria larriaren ondorioz, honako zuhurtasuneko eta zaintzako betebeharrak hauek urratu badituzu:

- ordaintzeko tresnen eta segurtasuneko datu pertsonalizatuaren segurtasuna mantentzeko arrazoizko neurri guztiak hartzea (begiratu: *2.5.1 atala, "Iruzurrak saihestea datu pertsonalen segurtasuna mantenduz"*);
- ordaintzeko tresna baldintza orokor eta tarifakoen arabera erabiltzea;
- ordaintzeko tresna bat edo hari lotutako datuak galdu, lapurtu edo baimenik gabe erabiliz gero, berehala jakinaraztea tresna blokea dezagun.

Ez dugu inolako erantzukizunik izango, nahiz eta zuk eragiketaren izaera baimendua aurkaratu, arrazoitu badezakegu eragiketa autentifikatu, behar bezala erregistratu eta kontabilizatu dela eta ez duela akats tekniko edo bestelako batek eragin.

□ NICKEL kontuan egindako eragiketen froga guri dagokigu, eta guk geuk egindako erregistro ukiezinetatik (elektronikoak, informatikoak edo telefonikoak) edo

NICKEL kontuko eragiketen erregistroa erakusten duen euskarri batean erreproduzitzetik, zuk aurkeztuko beharko zenukeen kontrako frogarik ezean.

2.5.4. Oker gauzatutako ordaintzeko eragiketak

Ordaintzeko eragiketa bat oker zordundu eta/edo ordaindu daiteke zure NICKEL kontuan.

- Ordaintzeko agindu bat agindu-emaileak emandako identifikatzaile bakarrarekin (IBAN) bat etorritz egiten denean, behar bezala gauzatu dela ulertuko da.

Eragiketa bat oker gauzatu badugu guk, eragiketaren zenbatekoa itzuliko dizugu eta, behar izanez gero, zordundutako NICKEL kontua eragiketa egin izan ez balitz egongo zen egoerara itzuliko dugu.

Edonola ere, ez dugu inolako erantzukizunik izango eragiketa gaizki egin izanaren arrazoa zuk existitzen ez diren edo oker diren bankuko datuak (IBAN) eman izatea bada, eta gogorarazten dizugu ez gaudela behartuta helmugako kontuaren titularra zuk izendatutako onuraduna dela egiaztatzen.

- Okerreko erabiltzaile batean oinarritutako ordaintzeko eragiketa baten ondorioz NICKEL kontuan ordainketa bat egiten bada, zure kontuan oker ordaindutako zenbatekoaren adinako zordunketa egiteko baimena ematen diguzu.

2.6. NICKEL kontu batean eragiketak erregistratzea: balio-data

Egindako edozein eragiketaren zenbatekoa NICKEL kontu batean erregistratzen dugun eguna da balio-data.

konexioa duten eragiketa gehienak egiten diren unean erregistratzen dira (NICKEL puntuetan dirua sartzea edo ateratzea, txartelarekin ordaintzea, ateratzen diren transferentziak...).

Beraz, jasotzen ditugun unetik egongo dira eskuragai funtsak NICKEL kontuan.

Zure NICKEL kontutik funtsak aterako ditugu ordaintzeko agindu bat bidaltzen diguzunean (transferentziak...) edo zure txartelarekin egindako ordainketa baten edo ateratze baten berri jasotzen dugunean.

Eragiketaren dataren eta eragiketa hori NICKEL kontuan erregistratuta geratzen den dataren artean egon daitekeen aldea informazioa bidaltzeko eta eragiketa kontabilizatzeke beharrezkoa den epeari bakarrik dagokio.

Gehienez ere hileko hogeita bi (20) euroko zenbateko pilatua duten baimendutako konexiorik gabeko eragiketak zordunketa geroratzuz kudeatzen dira.

Eragiketa horiek zure NICKEL kontuan biltzen eta zorduntzen dira hilean behin, aldezturik jakinaraziko zaizun datan, aipatutako konexiorik gabeko eragiketak egin eta hurrengo hilabeteko hirugarren egun baliodunarekin bat etorriko dena.

Transferentzia geroratuak eta helbideratutako zordunketak NICKEL kontuaren “zorrea” gehienez ere haiek gauzatzeko aurreikusitako datatik egun baliodun bat igaro ondoren idatziko dira edo, NICKEL kontuan saldo nahikorik ez dagoelako kenketa egiterik izan ez bada, gehienez lanegun bat igaro ondoren hura gauzatzeko aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.

Salbuespena: zure segurtasunagatik, kontuko eragiketak idaztea geroratzera behartuta egon gaitzke iruzurraren edo ohiz kanpoko eragiketen susmoak badaude. Kasu horietan, eten egin ahal izango da zure NICKEL kontuko eragiketen gauzatzea, zuk edo beste batek horri buruzko informazio gehiago eman arte.

2.7. Urteko kuota (begiratu ere bai: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”)

Urtero, NICKEL kontua irekitzearen urteurrenean, zenbateko finko bat zordunduko dugu NICKEL kontuan, urteko harpidetza-kuota gisa, indarrean dauden tarifen baldintzen arabera (begiratu: 1. eranskina. “*Tarifen baldintzak eta mugak*”).

SMS bidez, posta elektronikoz edo webgunearen bezeroaren gune bidez jasoko duzu ohar bat, kobrantza-data baino hamabost (15) egun natural lehenago gutxienez.

Urteurrenaren egunean urteko harpidetza-kuota ordaintzen ez baduzu, zor dituzun zenbatekoak zure NICKEL kontutik kentzen saiatuko gara (begiratu 4.3. atala, “*Zordundutako kopuruen ordainketa zatikatua*”). Urteko harpidetza osoa urteurrenaren egunean zorduntzen ez badugu, zure NICKEL kontua itxi egingo dugu, honako baldintza hauen arabera:

- harpidetzaren zenbatekoaren % 0tik % 25era: harpidetza urteurrenaren egunetik laurogeita hamar (90) egunera itxiko da;
- urteko harpidetzaren zenbatekoaren % 25 baino gehiago baina % 50 baino gutxiago: kontua urteurrenaren egunetik ehun eta laurogei (180) egunera itxiko da;
- urteko harpidetzaren zenbatekoaren % 50 baino gehiago eta % 75era: kontua urteurrenaren egunetik berrehun eta hirurogeita hamar (270) egunera itxiko da;
- urteko harpidetzaren zenbatekoaren % 75 baino gehiago baina % 100 baino gutxiago: harpidetza urteurrenaren egunetik hirurehun eta hirurogei (360) egunera itxiko da.

Berritze-data kontua aktibatzearen dataren arabera kalkulatzen da beti, eta ez NICKEL kontuan urteko kuota osorik ordaindu zen dataren arabera.

NICKEL kontua irekitzearen urteurrena baino lehen itxiz gero, itxiera-dataren eta NICKEL kontuaren irekieraren urteurren-dataren arteko aldia ordainduko dizugu.

2.8. Ordainketa-txartelaren aurrebaimena

Zenbait eragiketatan, salerosleak aurrebaimeneko eskaera bat egiten du, txartelaren baliozkotasuna egiaztatzeko eta NICKEL kontuak funts nahikoak dituela ziurtatzeko; adibidez, erregaia ordaindu nahi duzunean, alokairu-kontratu bat sinatzen duzunean edo erreserba bat egiten duzunean (gordailua bermearekin).

Aurrebaimen horren bidez, salerosleak eskaintako zerbitzuei ezarri beharreko merkataritza-baldintzetan finkatutako gehienezko zenbateko baterako ordaintzeko eskaera bat egiten du.

Zure NICKEL kontuak funts nahikoak baditu, aurrebaimeneko eskaera onartuko dugu, aplikatu beharreko gehienezko zenbatekoarekin. Eragiketa onartu ondoren, zure NICKEL kontuaren saldoa murriztu egingo da behin-behinean, salerosleak eskatutako aurrebaimenaren zenbatekoan.

Ezarritako epearen barruan, salerosleak honako hauek egin ditzake:

- aurrebaimena bertan behera uztea eta aurrez baimendutako zenbateko osoa askatzea;
- aurrez baimendutako zenbateko osoa edo zati bat erabiltzea eta, hala badagokio, gainerakoa askatzea. Zure NICKEL kontuan benetan zordunduko den zenbatekoa ordainketaren benetako zenbatekoa izango da, salerosleak bidalitako azken ordaintzeko aginduari dagokiona.

Dagokion zenbatekoaren kreditua NICKEL kontuan erregistratu gabe aurrebaimen bat eragin duen eragiketa bat bertan behera utzi baduzu, saleroslearekin harremanetan jarri beharko zara aurrebaimena baliogabetu dezan; FPE erakundeak ezin izango du izapide hori egin.

3. NOLA ORDAINDU ETA ORDAINKETAK JASO NICKEL KONTUAREKIN

Edozein eragiketa egin aurretik, berehalakoa edo epe jakin bat igaro ondoren izan, aurreikusita egon zein ez, NICKEL kontuan saldo nahikoa duzula edo izango duzula egiaztatu beharko duzu.

3.1. NICKEL kontuaren txartelak: NICKEL txartela, NICKEL PREMIUM txartela, MY NICKEL txartela eta NICKEL METAL txartela

3.1.1. Xedapen komunak

NICKEL kontua bakarrik pertsonalki erabiltzekoa denez, txartela helburu pertsonaletarako soilik erabili behar da, ez lanbide-helburuetarako.

3.1.1.1. Aurkezpena

□ Txartela Mastercard® nazioarteko ordainketa-txartela da, saldoa sistematikoki kontsultatzeko, berehalako zordunketakoa konexioa duten eragiketarako eta zordunketa geroratukoa konexiorik gabeko eragiketarako. Zure txartelarekin ordainketa bat edo eskudirua ateratzeko eragiketa bat egin aurretik eta konexiorik gabeko eragiketen hileko zordunketa egiten denean, NICKEL kontuan beti saldo nahikoa duzula egiaztatu beharko duzu (begiratu: 2.5. atala, “*Ordaintzeko eragiketak gauzatzea eta aurkaratzea*”).

□ Txartelak honako aukera hauek emango dizkizu:

- Mastercard® logotipoa duten kutxazain automatikoetan eskudirua ateratzeko Espainian eta atzerrian;
- Eskudirua ateratzeko eta sartzeko NICKEL puntuetan;

- Mastercard® logotipoa duten saltokietan edo urrutitik (Internet, telefonoa, posta bidezko salmenta) ondasunak eta zerbitzuak erosteko.

□ Txartela NICKEL kontu bati lotuta dago, eta izaera izenduna eta eskusiboa du, baita izena agerian ez duten NICKEL txartelek ere. Bidaliko dizugu, eta eskusiboki gurea izaten jarraituko du.

Eskuz idatzitako sinadura ipini beharko duzu derrigorrez, horretarako aurreikusitako tokian, txartelaren atzealdean.

Zure txartela ez mailegatzeko, emateko, aldatzeko edo funtzionalki edo fisikoki ez aldatzeko konpromisoa hartzen duzu.

□ Txartelak hilean hogei (20) euroko muga duten konexiorik gabeko eragiketak egiteko aukera ematen du, adingabeei esleitutako txarteletan izan ezik. Horietan aukera desaktibatuta dago.

Konexiorik gabeko eragiketarako baimenaren hileko muga hori konexiorik gabeko eragiketak (zordunketa geroratu) zordundu eta hurrengo egun balioudunean hasiko da, baldin eta zure NICKEL kontuan saldo nahikoa badago egindako konexiorik gabeko eragiketen zenbateko pilatua zordundu ahal izateko. Saldo nahikorik ez badago, ezin izango duzu konexiorik gabeko eragiketarik egin aurrez egindako konexiorik gabeko eragiketen zenbateko osoa ordaintzeko gorabehera egiaztatu eta hurrengo lehen hilabetetik aurrera.

Konexioa duten eragiketak gauzatzeko aukera besterik adierazi ezean aktibatuko da txartelean. Funtzionalitate hori eteteko eska dezakezu bezeroaren arretarako zerbitzura deituz.

□ Gure ekimenez, edozein unetan eta aurretik ohartarazi gabe, segurtasuneko arrazoiengatik edo kontratua ez betetzeagatik, zure txartela blokea dezakegu. Blokeoaren berri emango dizugu SMS bat bidaliz eman diguzun telefono mugikorrera eta, kasu horretan, txartela itzuli beharko duzu.

□ Txartelak “*contactless*” ordaintzeko funtzioa du, txartela urrutitik irakurriz, teknologia hori duten banku- edo ordainketa-txartelak onartzen dituzten salerosleen ekipo elektronikoen bidez erosketak edo zerbitzuak azkar ordaintzeko aukera ematen duena.

“*Contactless*” funtzioa besterik adierazi ezean aktibatuta egongo da zure txartelean. Hala ere, funtzio hori desaktiba dezakezu zure webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioaren bidez.

Segurtasuneko arrazoiak direla eta, “*contactless*” moduan egindako ordainketa bakoitzaren gehieneko aleko zenbatekoa berrogeita hamar (50) eurokoa izango da, eta “*contactless*” moduan egindako ondoz ondoko ordainketen gehieneko zenbateko pilatua ehun eta berrogeita hamar (150) eurokoa izango da. Gehieneko zenbateko pilatu hori gainditu ondoren, titularrak kode sekretua sartuz egin beharko du hurrengo ordainketa, txartela “*contactless*” moduan erabiltzen jarraitu ahal izateko eta eskuragai dagoen gehieneko zenbateko pilatua berriz hasteko.

□ Txartelak baliozkotasun-data bat du eta, hori igarotakoan, funtzionatzeari utziko dio. Baliozkotasun-epaia amaitzean, txartel berri bat bidaliko dizugu automatikoki posta arruntez. Hala ere, ez da hala gertatuko MY NICKEL txartelaren kasuan; izan ere, iraungitzen denean, titularrak automatikoki NICKEL txartel berri bat jasoko du posta arruntez, baldin eta MY NICKEL txartel berri bat eskatzea erabaki ez badu epemuga baino lehen (iraungitze-data txartelean bertan agertzen da).

Behin txartel berria jasota, zaharra berehala suntsitu beharko duzu, bereziki txipa.

- Txartel berri bat eskatzen den une bakoitza indarrean dauden tarifako baldintzen arabera fakturatuko da (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”) zure NICKEL kontuan.

3.1.1.2. Segurtasuneko datu pertsonalizatuak gordetzea

Ez dizugu inoiz txartelaren kode sekretua eskatuko; gure laguntzaile, agente edo ordezkariak ez dizute kode hori eskatuko, ez ahoz, ez idatziz.

Saleroslerik edo agintarik ezingo izango dizu kode sekretua eskatu, ez ahoz, ez idatziz.

Merkataritza elektronikoko webgunerik ere ezin izango dizu eskatu kode sekretua sartzeko.

Norbaitek esaten badizu kode sekretua eskatzeko baimena duela, ez egin kasu eta ohartarazi lehenbailehen telefonoz 917 877 117 zenbakira deituz.

BETI:

- MEMORIZATU NICKEL kontuaren zure txartelaren kode pertsonala eta sekretua;
- SARTU kodea zuhurtziaz gabeko begiradak saihesten.

Baina INOIZ EZ:

- IDATZI kode pertsonal eta sekretu hau;
- JAKINARAZI kode hau beste bati;
- SARTU kode hau Mastercard® edo NICKEL logotipoak daramatzan Ordainketa Elektronikoko Terminal (OET) bat ez den gailu batean edo Mastercard® logotipoa ez duen kutzazain automatiko batean.

3.1.1.3. Kode sekretua eta baimena

- Txartela aktibatzean edo itzultzea eskatzen duzunean, txartela erabili ahal izateko PIN kode pertsonal eta sekretu bat jakinaraziko dizugu SMS bidez, bai digitalki, mugikorrerako aplikazioaren bidez, bai webgunearen bezeroaren gunean adierazi duzun telefono mugikorreko zenbakira.

Honako honetarako beharko duzu kode pertsonal sekretua:

1. Ordainketa Elektronikoko Terminal (OET) bat duen salerosle, zerbitzuen hornitzaile edo erakunde baimendu bati erosketa edo zerbitzu bat ordaintzeko;
2. Mastercard® kutzazain automatiko batean edo NICKEL puntu batean eskudirua sartzeko edo bertatik ateratzeko.

Kode sekretua hiru aldiz oker sartuz gero, zure txartela blokeatu egingo da eta gure zerbitzuei eskatu beharko diezu txartel berri bat, indarrean dauden tarifen baldintzetan (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”).

Kode pertsonal sekretua ahaztuz gero, berreskuratu ahal izango duzu webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioaren bidez, indarrean dauden tarifen baldintzetan (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”).

- Batzuetan, salerosleak edo zerbitzuen hornitzaileak eskuzko sinadura eskatuko du paperezko tiketerako, ordainketaren egiaztagiri gisa, eta gorde egingo du.
- Urrutitik ordaintzeko eragiketetan (Internet, telefono bidez), kode pertsonal eta sekretua sartu beharrean txartelaren datu zehatz batzuk eskatuko dira: txartelaren zenbakia, iraungitze-data, atzealdean sinatzeko lekuaren ondoan agertzen den zenbakiaren azken hiru zifrak (kriptograma edo CCV kodea delakoa).
- Urrutitik ordaintzeko eragiketetan Nickel aplikazioan baliozkotu behar da ordainketa. Kasu jakin batzuetan eta, bereziki, bezeroak Nickel aplikazioa ez badu, erabilera bakarreko segurtasun-kode berezi bat eskatuko da. Kode hori SMS bidez bidaliko dizugu zuk adierazi duzun eta gure sistemetan erregistratuta dagoen telefono mugikorreko zenbakira.
- Kode pertsonal eta sekretua sartzeak edo txartelaren datu zehatzak eta, hala badagokio, erabilera bakarreko segurtasun-kode berezia sartzeak/jakinarazteak edo, “*contactless*” teknologiarekin egindako ordaintzeko eragiketetarako, txartela “*contactless*” teknologia duen terminal baten gainean jartzeak eta uzteak, edo segurtasun indartuko gailu pertsonalizatua erabiltzeak titularra aurkeztutako ordainketarekin ados dagoela erakutsiko dute, eta izaera atzerazina emango diote adostasun horri.

3.1.1.4. Gordailuak eta eskudirua ateratzea

Eskudirua gordailutzea eta ateratzea NICKEL puntuetan:

NICKEL puntu guztietan zure txartela erabiliz gordailuak egitea, eskudirua ateratzea eta ordaintzea posible da, Espainian eta FPE erakundeak ordaintzeko zerbitzuak emateko baimena duen Europar Batasuneko herrialde bakoitzean.

Eragiketa horiek gauzatzeko, kode pertsonal eta sekretua sartu beharko duzu NICKEL puntuak duen Ordainketa Elektronikoko Terminalean (OET).

Egindako gordailuari edo ateratzeari dagokion zenbatekoa zuzenean ordaindu edo zordunduko da NICKEL kontuan, eta aurreikusitako komisioa ere zuzenean zordunduko da NICKEL kontuan.

Honen bidez, jakinarazten dizugu NICKEL puntu batek uko egin diezaiokeela eskudirua ateratzeari edo gordetzeari, bereziki honako kasu hauetan:

- NICKEL puntuak ez badu eskatutako zenbatekoa, kuxan zein kontuan;
- Eskatutako zenbatekoak eta aurreikusitako komisioak NICKEL kontuan eskuragai dagoen saldoa gainditzen badute;
- Eskatutako zenbatekoak eskudirua ateratzeko ezarritako muga gainditzen badu;
- Eskatutako zenbatekoak eskudirua ateratzeko asteko muga gainditzen badu;
- Eskatutako zenbatekoak eskudirua ateratzeko zuk ezarritako muga gainditzen badu;
- Gordailututako zenbatekoak eskudirua gordailutzeko muga estandarra gainditzen badu;
- Eragiketa zuretzat arriskutsua dela uste badugu.

1. eranskinean (“*Tarifen baldintzak eta mugak*”) zehaztutako mugak eskudiruaren gordailuei eta ateratzei aplikatuko zaizkie.

Eskudirua ateratzea kutzazain automatikoetan:

Mastercard® logotipoa duten kutzazain automatiko guztietatik atera daiteke dirua, bai Espainian, bai atzerrian.

Horrelako eragiketa bat egiteko, NICKEL kontuaren txartelaren kode pertsonal eta sekretua sartu beharko duzu Mastercard® logotipoa daraman kutzazain automatikoan.

Ateratako zenbatekoa berehala zordunduko da NICKEL kontuan, eurotan, egun horretan indarrean dagoen kanbio-tasaren arabera, indarrean dauden tarifen baldintzen arabera aurreikusitako NICKEL komisioarekin (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”) eta kutzazain automatikoa ustiatzen duen establezimenduak jaso ditzakeen komisioekin batera.

Kutzazain automatikoak ateratzeko eragiketaren paperezko egiaztagiria (tiketa) jaulki ahal izango du, alde aurretik eskatuta. Kasu horretan, egiaztagiria gordetzea gomendatzen dizugu.

Honen bidez jakinarazten dizugu kutzazain automatikoan egiteko aurreikusitako ateratzeko eragiketa zenbait kasutan ezinezkoa izan daitekeela, bereziki honako hauetan:

- Kutzazainak ez badu eskatutako zenbatekoa;
- Eskatutako zenbatekoak eta aplikatzekoak diren komisioek NICKEL kontuan eskuragai dagoen saldoa gainditzen badute;
- Eskatutako zenbatekoak eskudirua ateratzeko ezarritako muga gainditzen badu;
- Eskatutako zenbatekoak eskudirua ateratzeko muga gainditzen badu;
- Eskatutako zenbatekoak eremu geografiko jakin batzuetan edo Mastercard® enpresak edo kutzazain automatikoaren jabe den entitateak ezarritako muga zehatzak gainditzen baditu;
- Eskatutako zenbatekoak zuk zeuk ezarritako muga gainditzen badu;
- Eragiketa zuretzat arriskutsua dela uste badugu.

3.1.1.5. Ordainketak

Ordainketak egin daitezke txartelarekin, urrutiko ordainketak ere bai.

Jakinazten zaizkigun konexioa duten eragiketak berehala zordunduko dira zure NICKEL kontuan (“*contactless*” funtzioaren bidez egindako eragiketak barne). Konexiorik gabeko eragiketak elkartu eta modu geroratuan zordunduko dira kontuan (begiratu: 2.5. atala, “*Ordaintzeko eragiketak gauzatzea eta aurkaratzea*”).

Salerosleak, zerbitzuen hornitzaileak edo ordainketaren erakunde onuradunak ordaintzeko eragiketaren frogagiria emango du. Frogagiria gordetzea gomendatzen dizugu.

Euroa ez den beste dibisa batean egindako ordainketen kasuan, zenbatekoa, kanbio-tasa adierazgarria barne, berehala zordunduko da ere bai. Mastercard® enpresak behin betiko zenbatekoa aplikatzen den kanbio-tasa ezarrita egun batzuen buruan jakinarazten digunez, erregularizazioko eragiketa bat egin ahal izango da.

3.1.1.6. Aurkakotasuna

□ NICKEL kontuaren txartela edo zure txartelaren datuak galdu, lapurtu edo iruzurrez erabiliz gero, blokeatzeko eskatu beharko duzu berehala:

- 917 877 119 telefono-zenbakira deituz (eguneko hogeita lau (24) orduetan eta asteko zazpi (7) egunetan dago eskuragai zerbitzua), edo

- webgunearen bezeroaren gunera edo NICKEL mugikorrerako aplikaziora sartuz.

Orduan, blokeatzeko eskaera erregistratuko dugu eta eskaeraren erregistro-zenbakia jakinaraziko dizugu.

- Zure NICKEL kontuaren segurtasuna arriskuan dagoela uste badugu edo kontu hori baimenik gabe edo iruzurrez erabili bada, zure txartela blokeatu beharko dugu.

Blokeatzen bada, edozein bitartekoren bidez informatuko zaitugu eta arrazoia jakinaraziko dizugu, segurtasuneko arrazoiengatik edo legezko debekuegatik izan ezik.

Txartela desblokeatuko dugu blokeoa eragiten duten arrazoiak desagertzen direnean.

- Zure txartela kode pertsonal eta isilpekorik gabe erabiltzen bada, lapurreta, galera edo iruzurra gertatu ondoren baina blokeatzeko eskaera egin aurretik gauzatutako eragiketak ez dira zure NICKEL kontuan egotziko.

Txartel faltsifikatu batekin gauzatutako edo zure datuak (identifikazioko zenbakiak, balio-data...) iruzurrez erabiliz baina NICKEL kontua blokeatzeko eskaera egin aurretik gauzatutako eragiketak ez dira zure NICKEL kontuan egotziko.

Txartela kode pertsonal eta isilpekoarekin erabiltzen bada, lapurreta, galera edo iruzurra gertatu ondoren baina blokeatzeko eskaera egin aurretik gauzatutako eragiketak zure NICKEL kontuan egotziko dira, berrogeita hamar (50) euroko mugara arte.

Ez da zure NICKEL kontuan zordunduko blokeatzeko eskaeraren ondoren gauzatutako eragiketarik.

Kasu horien guztien arabera, betiere bezeroak fede onez jokatu badu, eragiketa bat edo batzuk itzuliko zaizkio.

Zer esanik ez, zure NICKEL kontuaren txartela atal honen arabera (begiratu: 3.1.1.2. atala, "*Segurtasuneko datu pertsonalizatuak gordetzea*") blokeatzeko iruzurra eginez gero, datu pertsonal babestuek gordetzeko betebeharrak nahita ez betez gero edo zabarkeria larria eginez gero, edo informazioa urratuz gero, zure NICKEL kontuan zordunduko dira baimendu gabeko edo ustez baimendu gabeko eragiketa guztiak.

- Eskatutako blokeoaren arrazoia frogatzeko dokumentu bat (idatzizko adierazpena, salaketaren kopia...) eskatzeko eskubidea gordeko dugu. Halakorik ezean, zure NICKEL kontuan erregistratutako eragiketa guztiak zordunduko dira.

- Halaber, txartela aldi baterako blokeatu ahal izango duzu webgunearen bezeroaren gunean edo zure NICKEL mugikorrerako aplikazioan: zure eskaera berehala hartuko da kontuan eta itzulgarria izango da. Hiru blokeo-maila dituzu aukeratzeko: urruneko salmentak, atzerriko transakzioak edo transakzio guztiak.

3.1.1.7. Erreklamazioak

Epeak izango dira:

- hamahiru (13) hilabetekoa NICKEL kontuaren txartelean baimendu ez duzun edo oker egin den eragiketa bat erreklamatzeko. Epe hori hirurogeita hamar (70) egunetara murriztuko da eragiketaren onuradunaren ordaintzeko zerbitzuaren hornitzailea

Europar Batasuneko kide ez den ezta Europako Esparru Ekonomikoaren hitzarmenaren parte ez den herrialde batean dagoenean.

- zortzi (8) astekoa NICKEL kontuaren txartelean baimendu baina zenbateko zehatza ezagutzen ez duzun eragiketa bat erreklamatzeko, betiere zenbateko hori zentzuz aurreikusten dena baino handiagoa bada.

Eragiketa NICKEL kontuan benetan zorduntzen den egunetik hasiko da epea zenbatzen, kontuaren laburpenean adierazten den bezala.

Zure erreklamazioa oinarrituko duen dokumentu bat (egiaztagiria, idatzizko adierazpena...) eskatzeko eskubidea gordeko dugu.

Eskatutako itzultzeak zure NICKEL kontuan sartu ahal izango dira behin-behinean. Zure erreklamazioko espedientea osorik aztertu ondoren ikusten bada ez dagokizula diru-itzultzea, baimena ematen diguzu zure kontuan behin-behinean itzulitako zenbatekoa zorduntzeko.

3.1.2. NICKEL txartela

□ Lehenengo NICKEL txartela NICKEL puntu batean aktibatuko da NICKEL kontu bat irekitzeko eskaera egiten den unean edo, linean harpidetuz gero, webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik.

□ Aurka (begiratu: 3.1.1.6. atala, “*Aurkakotasuna*”) agertuz gero edo NICKEL txartela ordezteko eragiten duen narriadura nagusituz gero, NICKEL txartel berria jaso ahal izateko NICKEL txartel berria erosi eta NICKEL puntu batean aktibatu beharko duzu. Azken kasu horretan, NICKEL txartel berriaren salneurriaren eta ordezkoaren salneurriaren arteko aldea, indarrean dauden tarifen baldintzetan ezartzen den moduan (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”), automatikoki itzuliko da NICKEL kontuan.

□ NICKEL txartelean titularraren izen-abizenak agertzen ez direnez, beharrezkoa denean (Internet bidezko ordainketak egitean), nortasun-agiri nazionalean agertzen diren bezala izen-abizenak sartzea komeni da.

□ NICKEL txartela Mastercard® txartela da; beraz, bidaia pribatu edo profesionaletan ezbehar jakin batzuen aurrean aseguraturuta egongo zara. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Nickel aseguruari buruzko liburuxka (“Legezko dokumentuak – Nickel aseguruak” fitxan eta laguntzarako zentroan, “Nire Nickel txartelaren aseguruak eta laguntza” atalean, ikus daiteke).

Nickel txartelak txartelean adierazitako epean zehar balioko du, eta automatikoki baliogabetuko da NICKEL kontua ixten denean.

3.1.3. NICKEL PREMIUM txartela

□ NICKEL PREMIUM txartela:

- NICKEL kontuaren txartel izenduna da, izena erliebean inprimatuta duena;

- euroa, koroa suediarra edo leu errumaniarra ez diren monetetan (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”) izendatutako eragiketarako tarifa abantailatsuak lotuta ditu;
- atxikitako aseguru eta laguntzako estaldurak ditu (begiratu: aseguru estaldurei buruzko liburuxka, hemen kontsultatu daitekeena: <https://nickel.eu/sites/default/files/seguro-nickel.pdf>. Gure webgunean ere kontsulta dezakezu, <https://www.nickel.eu>, edo webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan).

Informazio gisa, eta ez zehatz-mehatz, aseguru eta laguntzako estalduren ezaugarri nagusiak aipatuko dizkizugu:

Asegurua:

- lapurreta eta kalte materialak alokairuko ibilgailuetara;
- heriotza edo baliaezintasuna eragiten duten istripuak;
- hegazkinak edo trenak atzeratzea;
- ekipajea galtzea, lapurtzea edo hondatzea;
- bidaiak aldatzea edo bertan behera uztea;
- erantzukizun zibila atzerrian;
- elurra eta mendia (bilaketako gastuak, mediku-gastuak);
- ordaintzeko bitartekoak iruzurrez erabiltzea (berrogeita hamar (50) euroko frankizia aplikagarria itzultzea);
- norberaren gauzak lapurtzea (larruzko gauzak, nortasun-agiriak, etxeko giltzak);
- Internet bidez egindako erosketak ez jasotzea edo ados egon gabe jasotzea.

Laguntza:

- gaixotasuna edo lesioa;
- mediku-gastuak;
- heriotza;
- bidaia.

Aseguru eta laguntzako prestazioak NICKEL PREMIUM txartela harpidetzen den egunetik aurrera sartuko dira indarrean.

□ NICKEL PREMIUM txartel bat eskuratzeko beharrezkoa da:

- NICKEL kontu baten titularra izatea;
- adinez nagusia izatea eta gaitasun juridikoa izatea;
- NICKEL PREMIUM txartelaren harpidetza egitea webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik;
- horregatik aurreikusitako kopuru guztiak ordaintzea.

NICKEL PREMIUM txartelak txartelean adierazitako epean zehar balioko du. Isileko adostasunez berriro daiteke, eta NICKEL txartelari, MY NICKEL txartelari edo NICKEL METAL txartelari uko egitea dakar. NICKEL txartela eta MY NICKEL txartela baliozkoak izango dira NICKEL PREMIUM txartela aktibatu arte (NICKEL txartela edo MY NICKEL txartela bertan behera uzten ez bada).

NICKEL PREMIUM txartela postaz bidaliko dizugu. Jaso bezain laster, webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik aktibatu ahal izango duzu. Orduan, zure NICKEL PREMIUM txartelaren atzealdean dagoen hamar (10) zifrako kodea sartu beharko duzu eta, gero, sartu beharko duzun segurtasuneko kode bat jasoko duzu SMS bidez edo hura jasotzeko aukera ematen duen beste edozein bitartekoren bidez. Segurtasuneko kodea sartutakoan, zure isilpeko kodea SMS bidez jasoko duzu.

NICKEL PREMIUM txartelaren harpidetza edozein unetan eta arrazoirik gabe baliogabetu ahal izango duzu webgunearen bezeroaren gunetik. NICKEL PREMIUM txartelaren zerbitzuei onura aterako diezu NICKEL PREMIUM txartelaren urteko harpidetzaren hurrengo epemugara arte.

NICKEL PREMIUM txartelaren urteko harpidetza bertan behera uzten baduzu, txartelari lotutako aseguruko eta laguntzako prestazioengatik ordaindutako zenbatekoak ezin izango dira itzuli.

Zure NICKEL PREMIUM txartelaren urteko harpidetzaren urteurrena betetzen den egunean, eta betiere webgunearen bezeroaren gunean isileko berritzearen laukia desgaitu baduzu, bertan behera utziko da automatikoki NICKEL PREMIUM txartelaren harpidetza (eta horrek dakartzan abantaila guztiak). Hala ere, NICKEL PREMIUM txartela gorde ahal izango duzu. Ordutik aurrera, NICKEL txartelak bezala funtzionatuko du.

□ Harpidetzeko unean eta urtero, NICKEL PREMIUM txartela aktibatzearen urteurrena betetzen den egunean, kuota finko bat zordunduko dugu zure NICKEL kontuan, indarrean dauden tarifen baldintzen arabera (begiratu: 1. eranskina, "*Tarifen baldintzak eta mugak*"), NICKEL PREMIUM txartelaren urteko harpidetzagatik.

Ohar bat jasoko duzu SMS edo posta elektronikoko bidez zordunketaren eguna baino hogeita hamar (30) egun natural lehenago, gutxienez. Kuota osorik ordaindu beharko da hasitako urte bakoitzeko.

Zure NICKEL kontuak saldo nahikorik ez badu NICKEL PREMIUM txartelaren urteko kuota osorik zorduntzeko, hogeita hamar (30) egun izango dituzu zure kontuan diru-sartze bat egiteko. Epe hori igaro ondoren, automatikoki deuseztatuko da NICKEL PREMIUM txartela (eta horrek dakartzan abantaila guztiak). Hala ere, NICKEL PREMIUM txartela gorde ahal izango duzu. Ordutik aurrera, NICKEL txartelak bezala funtzionatuko du.

NICKEL PREMIUM txartelaren urteko harpidetzaren urteurrena jaulkitako lehen NICKEL PREMIUM txartela aktibatu den dataren arabera kalkulatzen da beti, eta ez NICKEL PREMIUM txartelaren urteko kuota osorik ordaindu den dataren arabera.

□ NICKEL PREMIUM txartela bertan behera utziz gero, automatikoki proposatuko dizugu NICKEL PREMIUM txartel berri baten eskaera berresteko.

NICKEL puntu batean, webgunearen bezeroren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik ere eskatu ahal izango duzu NICKEL PREMIUM txartel berri bat.

NICKEL PREMIUM txartela hondatzen bazaizu eta, beraz, ordezkatu behar baduzu, txartel berri bat eskatu beharko duzu NICKEL puntu batean, webgunearen bezeroren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik, indarrean dauden tarifen baldintzen arabera (begiratu: 1. eranskina, "*Tarifen baldintzak eta mugak*").

Txartelaren urteko harpidetza bertan behera utziz gero, txartelaren hornidurari dagokion zenbateko finkoa ezingo da inolaz ere itzuli (begiratu: 1. eranskina, "*Tarifen baldintzak eta mugak*"). Hala ere, lehen zehaztu den bezala, txartela gorde ahal izango duzu. Ordutik aurrera, NICKEL txartelak bezala funtzionatuko du.

3.1.4. MY NICKEL txartela

- MY NICKEL txartela:
 - NICKEL kontuaren txartel izenduna da;
 - aldez aurretik webgunearen bezeroren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan dagoen “Irudien katalogo” batetik ateratako irudi pertsonalizatu bat duena.

- MY NICKEL txartel bat eskuratzeko beharrezkoa da:
 - NICKEL kontu baten titularra izatea;
 - adinez nagusia izatea eta gaitasun juridikoa izatea;
 - MY NICKEL txartelaren harpidetza egitea webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik.

- “Irudien katalogoa” delakoan proposatutako irudiak baliozkoak izango dira betiere webgunearen bezeroren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan agertzen badira.

Irudiz aldatu nahi baduzu, oso erraza da: MY NICKEL txartel berri bat besterik ez duzu eskatu behar.

- MY NICKEL txartelaren harpidetza baliozkoa izango da txartelean adierazitako aldirako, eta ez da isileko adostasunez berrituko. NICKEL txartela baliozkoa izango da MY NICKEL txartela aktibatu arte (NICKEL txartela bertan behera uzten ez bada).

MY NICKEL txartela postaz bidaliko dizugu. Jaso bezain laster, webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik aktibatu ahal izango duzu. Orduan, zure MY NICKEL txartelaren atzealdean dagoen hamar (10) zifrako kodea sartu beharko duzu eta, gero, sartu beharko duzun segurtasuneko kode bat jasoko duzu SMS bidez edo hura jasotzeko aukera ematen duen beste edozein bitartekoren bidez. Segurtasuneko kodea baliozkotzean, zure isilpeko kodea SMS bidez jasoko duzu.

- MY NICKEL txartela harpidetzeko unean zenbateko finko bat zordunduko dugu zure NICKEL kontuan, indarrean dauden tarifen arabera (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”).

- Zure MY NICKEL txartela ezeztatuta badago, MY NICKEL txartel berri bat eska dezakezu webgunearen bezeroren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik, eta etxera bidaliko dizugu. MY NICKEL txartel berria jaso arte, NICKEL txartel bat jaso dezakezu zuzenean NICKEL puntu batean.

- Zure MY NICKEL txartela hondatuta badago eta ordezkatzeko behar bada, MY NICKEL txartel berri bat eska dezakezu webgunearen bezeroren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik. MY NICKEL txartel berria jaso arte, NICKEL txartel bat jaso dezakezu zuzenean NICKEL puntu batean.

- MY NICKEL txartelaren eskaera berri bakoitzak erantsitako isilpeko kodea aldatzea dakar.

MY NICKEL txartel bat eskatzen duzun bakoitzean, lotutako isilpeko kodea aldatu beharko duzu.

Txartel berri bat eskatzen duzunean, aurreko MY NICKEL txartelak baliozkoa izaten jarraituko du MY NICKEL txartel berria aktibatu arte, MY NICKEL txartela bertan behera uzten denean izan ezik.

- MY NICKEL txartela Mastercard® txartela da; beraz, bidaia pribatu edo profesioaletan ezbehar jakin batzuen aurrean aseguratuta egongo zara NICKEL txartelaren titularren baldintza berberetan.. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu

barne datozen aseguruak (“Legezko dokumentuak – Nickel aseguruak” fitxan eta laguntzarako zentroan, “Nire NICKEL edo MY NICKEL txartelaren aseguruak eta laguntza” atalean, ikus daiteke).

3.1.5. NICKEL METAL txartela

□ NICKEL METAL txartela:

- NICKEL kontuaren metalezko txartel izenduna da, izena erliebean inprimatuta duena;
- txartelarekin ateratzeko eta ordaintzeko eragiketarako tarifa abantailatsuak lotuta ditu (begiratu: 1. eranskina);
- atxikitako aseguruko eta laguntzako estaldurak ditu (begiratu: aseguruaren estaldurei buruzko liburuxka, hemen kontsultatu daitekeena:
<https://nickel.eu/sites/default/files/seguro-nickel.pdf>
Gure webgunean ere kontsulta dezakezu, <https://www.nickel.eu>, edo webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan).

Informazio gisa, eta ez zehatz-mehatz, aseguruko eta laguntzako estalduren ezaugarri nagusiak aipatuko dizkizugu:

Asegurua:

- lapurreta eta kalte materialak alokairuko ibilgailuetara;
- heriotza edo baliaezintasuna eragiten duten istripuak;
- hegazkinak edo trenak atzeratzea;
- ekipajea galtzea, lapurtzea edo hondatzea;
- bidaiak aldatzea edo bertan behera uztea;
- erantzukizun zibila atzerrian;
- elurra eta mendia (bilaketako gastuak, mediku-gastuak);
- ordaintzeko bitartekoak iruzurrez erabiltzea (berrogeita hamar (50) euroko frankizia aplikagarria itzultzea);
- norberaren gauzak lapurtzea (larruzko gauzak, nortasun-agiriak, etxeko giltzak);
- Internet bidez egindako erosketak ez jasotzea edo ados egon gabe jasotzea.

Laguntza:

- gaixotasuna edo lesioa;
- mediku-gastuak;
- heriotza;
- bidaia.

Aseguruko eta laguntzako prestazioak NICKEL METAL txartela harpidetzen den egunetik aurrera sartuko dira indarrean.

□ NICKEL METAL txartel bat eskuratzeko beharrezkoa da:

- NICKEL kontu baten titularra izatea;
- adinez nagusia izatea eta gaitasun juridikoa izatea;
- NICKEL METAL txartelaren harpidetza egitea webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik;
- horregatik aurreikusitako zenbateko guztiak ordaintzea.

NICKEL METAL txartelak txartelean adierazitako epean zehar balioko du. Isileko adostasunez berritu daiteke, eta NICKEL txartelari, NICKEL PREMIUM txartelari edo

MY NICKEL txartelari uko egitea dakar. NICKEL, MY NICKEL edo NICKEL PREMIUM txartelak baliozkoak izango dira NICKEL METAL txartela aktibatu arte.

NICKEL METAL txartela postaz bidaliko dizugu. Jaso bezain laster, webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik aktibatu ahal izango duzu. Orduan, zure NICKEL METAL txartelaren atzealdean dagoen 10 zifrako kodea sartu beharko duzu eta, gero, sartu beharko duzun segurtasuneko kode bat jasoko duzu SMS bidez edo hura jasotzeko aukera ematen duen beste edozein bitartekoren bidez. Segurtasuneko kodea sartutakoan, zure isilpeko kodea SMS bidez jasoko duzu.

NICKEL METAL txartelaren harpidetza edozein unetan eta arrazoirik gabe baliogabetu ahal izango duzu webgunearen bezeroaren gunetik. NICKEL METAL txartelaren zerbitzuei onura aterako diezu NICKEL METAL txartelaren urteko harpidetzaren hurrengo epemugara arte. Adibidez, NICKEL METAL txartelaren urteko harpidetza apirilaren 1ean bertan behera uzten baduzu eta NICKEL METAL txartelaren urteko harpidetzaren urteurrena abenduaren 31n bada, NICKEL METAL txartelaren zerbitzuei abenduaren 31ra arte etekina aterako diezu.

NICKEL METAL txartelaren urteko harpidetza bertan behera uzten baduzu, txartelari lotutako aseguruko eta laguntzako prestazioengatik ordaindutako zenbatekoak ezin izango dira itzuli.

NICKEL METAL txartelaren urteko harpidetzaren urteurrena betetzen den egunean, eta betiere webgunearen bezeroaren gunean isileko berritzearen laukia desgaitu baduzu, bertan behera utziko da automatikoki NICKEL METAL txartelaren harpidetza (eta horrek dakartzan abantaila guztiak). Hala ere, NICKEL METAL txartela gorde ahal izango duzu. Orduan aurrera, NICKEL txartelak bezala funtzionatuko du.

□ Harpidetzeko unean eta urtero, NICKEL METAL txartela aktibatzearen urteurrena betetzen den egunean, kuota finko bat zordunduko dugu zure NICKEL kontuan, indarrean dauden tarifen baldintzen arabera (begiratu: 1. eranskina), NICKEL METAL txartelaren urteko harpidetzagatik.

Ohar bat jasoko duzu SMS edo posta elektronikoko bidez zordunketaren eguna baino hogeita hamar (30) egun natural lehenago, gutxienez. Kuota osorik ordaindu beharko da hasitako urte bakoitzeko.

Zure NICKEL kontuak saldo nahikorik ez badu NICKEL METAL txartelaren urteko kuota osorik zorduntzeko, hilabete bat izango duzu zure kontuan diru-sartze bat egiteko. Epe hori igaro ondoren, automatikoki deuseztatuko da NICKEL METAL txartela (eta horrek dakartzan abantaila guztiak). Hala ere, NICKEL METAL txartela gorde ahal izango duzu. Orduan aurrera, NICKEL txartelak bezala funtzionatuko du.

NICKEL METAL txartelaren urteko harpidetzaren urteurrena jaulkitako lehen NICKEL METAL txartela aktibatu den dataren arabera kalkulatzen da beti, eta ez NICKEL METAL txartelaren urteko kuota osorik ordaindu den dataren arabera.

NICKEL METAL txartela bertan behera utziz gero, automatikoki proposatuko dizugu NICKEL METAL txartel berri baten eskaera berresteko.

Webgunearen bezeroren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik ere eskatu ahal izango duzu NICKEL METAL txartel berri bat.

NICKEL METAL txartela hondatzen bazaizu eta, beraz, ordezkatu behar baduzu, txartel berri bat eskatu beharko duzu webgunearen bezeroren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik.

NICKEL METAL txartela ordezkatzeari dagokion tarifa 1. eranskinean, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”, dago.

Txartelaren urteko harpidetza bertan behera utziz gero, txartelaren hornidurari dagokion zenbateko finkoa ezingo da inolaz ere itzuli (begiratu 1. eranskina). Hala ere, lehen zehaztu den bezala, txartela gorde ahal izango duzu. Ordutik aurrera, NICKEL txartelak bezala funtzionatuko du.

3.2. Transferentziak

3.2.1. Aurkezpena

Ateratzen den transferentzia da zure NICKEL kontuko diru-kopuru bat beste NICKEL bezero baten NICKEL kontura edo beste erakunde batean irekitako banku- edo ordainketa-kontu batera transferitzea. Eurotan bakarrik egin ahal izango da, eurotan ordaintzeko gune bakarraren (SEPA) barruan dagoen herrialde edo lurralde baterantz; hau da, Europar Batasuna, Andorra, Guernsey, Man Uhartea, Islandia, Jersey, Liechtenstein, Monaco, Norvegia, Erresuma Batua, San Marino, Saint-Pierre eta Mikelune, Suitza eta Vatikanoa.

Sartzen den transferentzia beste batek zure NICKEL kontura egindako diru-kopuru baten transferentzia da. Eurotan eta eurotan ordaintzeko gune bakarreko herrialde batetik bakarrik egin ahal izango da, SEPA sarearen bidez.

Ez dira onartuko SWIFT sarearen bidez sartzen edo irteten diren transferentziak.

3.2.2. SEPA transferentziak

SEPA transferentzia bat SEPA gunearen barruan eurotan egindako transferentzia da. Atal

honen xedapenen menpean, honako hauek dira SEPA transferentziak:

- SEPA transferentzia estandarra;
- SEPA berehalako transferentzia.

3.2.2.1. Ateratzen den SEPA transferentzia estandarra (aldizkakoa edo errepikakorra)

SEPA transferentzia estandarra izan daiteke:

- a) *aldizkakoa**: noizean behin egiten den eragiketa baterako;
- b) *errepikakorra*** : automatikoki eta denboran erregularrak diren transferentzietarako.

**Aldizkako* transferentzia baterako, agindua jasotzen den unea da agindua jasotzen den laneguna (edo hurrengo laneguna, laneguna ez den egun batean jasotzen bada). *Berehalako gauzatzea*.

**Transferentzia *errepikakorak* direnean, agindua jasotzen den unea aukeratutako data errepikakorraren aurreko eguna dela ulertuko da.

Nolanahi ere, SEPA transferentzia estandarraren agindua jaso eta hurrengo laneguna amaitu baino lehen gauzatuko da.

SEPA transferentzia estandarraren agindua atzeraezina ohi da hori jaso ondoren.

3.2.2.2. Sartzen den SEPA transferentzia estandarra

NICKEL kontua berehala ordainduko da funtsak jaso ondoren, aplikatzekoa den indarreko araudiaren arabera edo gure aldetik esku-hartze zehatza eskatzen duten bestelako inguruabarren arabera debekatzen bada izan ezik.

3.2.2.3. SEPA berehalako transferentzia

SEPA berehalako transferentzia noizbehinkako transferentzia bat da, eta aukera ematen du funtsak hamar (10) segundo baino gutxiagoan transferitzeko herrialde berean edo SEPA guneko bi herrialdetan dauden ordainketa-zerbitzuen hornitzaileen bi ordainketa-konturen artean, baldin eta ordainketa-zerbitzuen bi hornitzaileek zerbitzu hori aktibatu badiete bezeroei.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, transferentzia hori gauzatzeko denbora gehienez hogeita (20) segundokoa izan daiteke, ohiz kanpoko zailtasunak daudenean.

SEPA berehalako transferentzia eskuragai dago etengabe eguneko hogeita lau (24) orduetan, asteko zazpi (7) egunetan eta urteko egun guztietan.

Azteraezina da ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak jasotzen duen unetik.

SEPA berehalako transferentzia bat jasoz gero, eragiketa horri dagokion zenbatekoa berehala ordainduko da NICKEL kontuan.

NICKEL kontuaren segurtasuna bermatzeko, gehienezko mugak aplika dakizkieke transferentzien zenbatekoei.

3.2.3. Baimena eta gauzatzea

□ Transferentzia bat egiteko:

- NICKEL kontuan sartu beharko zara webgunearen bezeroaren gunetik edo NICKEL mugikorrerako aplikaziotik;
- diru-kopuruaren jasotzailearen banku-datuak (IBAN zenbakia) izan beharko dituzu;
- jasotzailearen izen-abizenak edo izen soziala izan beharko dituzu;
- transferentziaren zenbatekoa zehaztu beharko duzu;
- nahi duzun gauzatze-data zehaztu beharko duzu, dagokionean;
- transferentziaren azalpena zehaztu beharko duzu.

Zure baimena alde zuzenetik adierazitako urratsak betetzetik eratorriko da.

□ Ezin izango dugu transferentzia-agindurik gauzatu zure NICKEL kontutik honako kasu hauetan:

- NICKEL kontuan eskuragai dagoen saldoa transferentziaren zenbatekoa baino txikiagoa bada;
- transferentzia gauzatzeak ezarritako eguneko transferentzia-muga gainditzea badakar;
- transferentzia gauzatzeak ezarritako hileko transferentzia-muga gainditzea badakar;
- transferentziarako idatzitako informazioa okerra edo osatugabea bada.

Legezko debekuagatik izan ezik, zure bezeroaren gunean (webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan) edo posta elektronikoz jakinaraziko dizugu ukatzearen arrazoia.

Osatu gabeko, amaitu gabeko edo webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan baliozkotu gabeko transferentzia-agindua ezin izango da gauzatu.

Ukatzearen kasuan edo egiaztapen gehiago behar direnean izan ezik, SEPA transferentzia estandarra, gehienez ere, transferentzia-agindua eman zitzaigun egunaren hurrengo egun baliodunaren amaieran igorriko da, eta SEPA berehalako transferentzia, gehienez ere, hogeita (20) segundoko epean.

□ Zure NICKEL kontuaren segurtasuna arriskuan dagoela uste badugu edo kontu hori baimenik gabe edo iruzurrez erabili bada, transferentzia-agindu baten edozein gauzatze blokeatu beharko dugu.

Blokeatzen bada, edozein bitartekoren bidez informatuko zaitugu eta arrazoiak jakinaraziko dizugu, segurtasuneko arrazoiengatik edo legezko debekuagatik izan ezik.

Transferentzia baten gauzatzea desblokeatu egingo da blokeoa eragiten duten arrazoiak desagertzen direnean.

□ Transferentzia bat jasotzeko, zure izen-abizenak eta NICKEL kontuaren IBAN zenbakia jakinarazi beharko dizkiozu diruaren transferentzia egin nahi duen pertsonari.

Sartzen den transferentzia baten zenbatekoa zure NICKEL kontuan ordainduko da jasotzen duzun egunean edo, beranduenez, hurrengo lanegunean.

Baimena ematen diguzu zure NICKEL kontuan oker jaso dituzun eta agindu-emailearen bankuak igorritako baliogabetzeko eragiketa bati lotuta dauden transferentzien zordunketa baliogabetzeko, baldin eta agindu-emailearen bankuak huts egin badu, agindu-emaileak huts egin badu (bankuak arrazoituta) edo iruzurra frogatuta badago.

3.2.4. Transferentziak erreklamatzeko

Hamahiru (13) hilabeteko epea duzu baimendu gabeko edo oker gauzatutako transferentzia baten aurka errekurtsioa jartzeko.

NICKEL kontuan transferentzia zordundu egiten den egunean hasiko da epea.

Zure erreklamazioa oinarrituko duen dokumentu bat (egiaztagiria, idatzizko adierazpena...) eskatzeko eskubidea gordeko dugu.

3.3. Helbideratutako zordunketak

3.3.1. Aurkezpena

Helbideratutako zordunketak aukera ematen du zuzenean NICKEL kontuarekin ordainketa errepikakorrek modu errazean egiteko, hala nola elektrizitateko edo gaseko fakturak, zergak, alokairu bat...

Helbideratzeko agindu bat igortzen duzunean, ez duzu beti alde aurretik ezagutzen zenbat diru zordunduko den, ezta helbideratzeen data zehatza ere.

Helbideratutako zordunketa bat eurotan bakarrik eta eurotan ordaintzeko gune bakarraren (SEPA) herrialde edo lurralde batean kontua duen hartzekodun batek egin dezake.

3.3.2. Baimena eta gauzatzea

□ Hartzekodunari baimena eman beharko diozu zordunketa edo zordunketak NICKEL kontuan igorri ditzan eta guri, berriz, zenbatekoa kontu horretan bertan zorduntzeko.

Helbideratutako zordunketa gauzatzeko:

- “helbideratutako zordunketako eskaera” eta “helbideratutako zordunketako baimena” edo “SEPA helbideratutako zordunketako agindua” bete eta sinatu beharko dituzu.
- dokumentua edo dokumentuak eta IBAN kontuaren titulartasuneko ziurtagiria hartzekodunari bidali edo eman beharko dizkiozu.

□ Hartzekodunak zordunketaren zenbatekoa eta data jakinarazi beharko dizkizu (adibidez, faktura bat edo ordaintzen egutegi bat bidaliz) zure aldeko zordunketa helbideratzeko eskatu baino lehen. “SEPA helbideratutako zordunketako aginduaren” kasuan, hartzekodunak gutxienez zordunketaren data baino hamalau (14) egun natural lehenago jakinarazi beharko dizu informazioa.

Hartzekodunak helbideratutako zordunketaren jakinarazpen bat bidaltzen digunean, SMS bidez jakinaraziko dizugu eman diguzun telefono mugikorraren zenbakian. Ziurtatu beharko duzu NICKEL kontuan duzun saldoak aukera ematen dizula helbideratutako zordunketa aurreikusitako datan ordaintzeko.

Hartzekodunak emandako informazioa eta aurreikusitako informazioa bat ez badatoz, berehala jarri beharko zara harremanetan hartzekodunarekin.

□ Uko egin behar ez badiogu, zordunketa NICKEL kontuan aurreikusitako egunean zordunduko da. Gauzatzeari uko egiten badiogu, edozein bitartekoren bidez informatuko zaitugu (SMS, posta elektronikoa...) eta arrazoa jakinaraziko dizugu, segurtasuneko arrazoiengatik edo legezko debekuagatik izan ezik.

Ukatutako zuzeneko zordunketa bakoitzeko zenbateko bat zordunduko dugu zure NICKEL kontuan, aplikatzekoak diren tarifen baldintzetan aurreikusitakoaren arabera (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”).

Zure NICKEL kontuak saldo nahikorik ez badu zenbateko oso hori zorduntzeko, zati batean zordunduko da eskuragai dagoen saldoaren mugaraino, eta zordunketa osagarri bat edo batzuk egingo ditugu zure NICKEL kontuaren saldoa zenbateko osoa ordaintzeko nahikoa izan bezain laster.

□ Zure NICKEL kontuaren segurtasuna arriskuan dagoela uste badugu edo kontu hori baimenik gabe edo iruzurrez erabili bada, edozein helbideratutako zordunketaren gauzatzea blokeatu beharko dugu.

Blokeatzen bada, edozein bitartekoren bidez informatuko zaitugu eta arrazoa jakinaraziko dizugu, segurtasuneko arrazoiengatik edo legezko debekuagatik izan ezik.

Zordunketa edo zordunketak desblokeatu egingo dira blokeoa eragiten duten arrazoiak desagertzen direnean.

3.3.3. Aurkakotasuna – Baliogabetzea

□ Helbideratutako zordunketa bat gauzatzeko adostutako egunaren aurreko egun baliodunaren amaierara arte aurka egin ahal izango duzu zure bezeroaren gunera (webgunearen bezeroaren gunera edo NICKEL mugikorrerako aplikaziora) sartuz.

Aurkakotasuna aurreikusitako helbideratutako zordunketen epemuga baterako edo gehiagorako izan daiteke. Era berean, helbideratutako zordunketako agindu bat behin betiko baliogabetzeko ere eskatu ahal izango du.

Kasu horietan guztietan, hartzekodunari jakinarazi beharko diozu.

□ “SEPA helbideratutako zordunketako aginduaren” kasuan, hogeita hamasei (36) hilabeteko epean helbideratutako zordunketako eskaerarik aurkezten ez bada, agindua baliogabetu egingo da.

3.3.4. Helbideratutako zordunketak erreklamatzeari buruz

Epeak dira:

- hamahiru (13) hilabetekoa zuk baimendu ez duzun helbideratutako zordunketa bati errekurtsioa jartzeko;
- zortzi (8) astekoa zuk baimendu duzun baina zenbateko zehatza ezagutzen ez duzun helbideratutako zordunketa bati errekurtsioa jartzeko, baldin eta aurreko gastuak, Nickel erakundearekin duzun kontratuaren baldintzak eta kasuari dagozkion inguruabarrak kontuan hartuta zenbateko hori aurreikus zitekeena baino handiagoa bada.

NICKEL kontuan helbideratzeko eragiketa zordundu egiten den egunean hasiko da epea.

3.4. Ordainketak kontu batean banku- edo ordainketa-txartelaren bidez

Zure NICKEL kontuan ordainketak egiteko aukera duzu, banku-txartel edo ordainketa-txartel batekin lineako ordainketak eginez. Eragiketa berretsi ondoren, egindako gordailuari dagokion zenbatekoa berehala ordainduko da NICKEL kontuan, eta indarrean dauden tarifen baldintzen arabera (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”) aurreikusitako komisioa ere berehala zordunduko da zure NICKEL kontuan.

Ordainketen plataforma kudeatzen duen zerbitzuen hornitzaileak ordaintzeko eragiketaren frogagiria emango du. Frogagiria gordetzea gomendatzen dizugu.

NICKEL kontuan banku- edo ordainketa-txartel bidez egindako ordainketak HAMAR euro (10 €) baino zenbateko handiagoetarako bakarrik egin ahal izango dira, eta eskudiruko gordailuekin batera gehienez hileroko BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR euroko (950 €) muga komun bat izango dute.

4. INFORMAZIO ERABILGARRI GEHIAGO

4.1. NICKEL kontu bat bahitzea

Publikoa zein pribatua den hartzekodun batekin zor bat baduzu, NICKEL kontua bahitu egin daiteke.

Epaitegi edo auzitegi baten, Zerga Administrazioiko Espainiako Agentziaren edo Gizarte Segurantzaren bahiturako agindu bat edo badaezpadako bahiturako agindu bat jasotzen badugu, (hemendik aurrera, “**Bahituko duen erakundea**”), alde batetik, zure NICKEL kontuaren saldoaren berri eman beharko diogu bahituko duen erakundeari eta, bestetik, aldi baterako blokeatu beharko dugu bahituran adierazitako saldoaren zenbatekoa. Horrek zure NICKEL kontuan egin daitezkeen eragiketa guztiak edo batzuk blokeatzea ekar lezake.

Hasierako bahiturako aginduan adierazitako epea igaro eta bahituko duen erakundearen aldetik hasierako bahitura indarrik gabe utziko duen kentzeko agindurik edo beste edozein agindu jaso ez badugu, bahitutako zenbatekoa bahituko duen erakundeari bidali beharko diogu.

Zure NICKEL kontuan bahiturako agindu bat gauzatzen badugu aurreko paragrafoetan xedatutakoaren arabera, bahituraren kudeaketari aurre egiteko zenbateko finko bat zordunduko dugu zure kontuan, indarrean dauden tarifen baldintzetan ezarritakoaren arabera (begiratu: 1. eranskina, “*Tarifen baldintzak eta mugak*”). Zure NICKEL kontuak saldo nahikorik ez badu dagokion zenbateko finkoa ordaintzeko, zenbateko hori kenduz joango da eskuragai dagoen saldoaren arabera, eta kobrantza gehigarri bat edo batzuk egingo ditugu zure NICKEL kontuko kredituak zor den zenbateko finko gutzia kitatzeko aukera ematen duen unetik aurrera.

4.2. Baldintza orokor eta tarifakoen eta zure egoera pertsonalaren aldaketa

□ Baldintza orokorrak eta tarifakoak edozein unetan kontsultatu, inprimatu eta deskarga daitezke <https://www.nickel.eu> webgunetik, edo edozein unetan kontsulta daitezke NICKEL mugikorrerako aplikazioan edo webgunearen bezeroaren gunean eta NICKEL puntuetako NICKEL terminaletan.

Baldintza orokorrak eta tarifakoak aldatu nahi baditugu, baldintza orokor eta tarifako berriak indarrean sartu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago argitaratuko ditugu. Ildo horretatik, bi hilabeteko epea izango duzu baldintza orokor eta tarifakoetan egindako aldaketekin ados ez zaudela jakinarazteko. Salbuespen izango dira legearen edo araudiaren arrazoiengatik aginduzkoak diren berehala aplikatzeko aldaketak, baita NICKEL kontuaren titularrarentzat zalantzarik gabe onuragarriagoak diren baldintzak ere. FPE erakundeak ulertuko du bezeroak baldintzak aldatzea onartu duela, baldin eta bezeroak FPE erakundeari indarrean sartzeko proposatutako data baino lehen jakinarazten ez badio ez dituela aldaketa horiek onartzen. Baldintza orokor eta tarifakoetan egindako aldaketen aurka agertuz gero, zure kontua itxi ahal izango duzu inolako kosturik gabe eta zuzenean, aldaketa horiek aplikatzeko proposatutako data baino lehen.

□ NICKEL kontua irekitzean eman zenigun informazioa aldatu egin bada edo osatu gabe badago (bereziki, helbide elektronikoa, posta-helbidea, telefono-zenbakia), ahalik eta lasterren jakinarazi beharko duzu egoeraren aldaketa zure bezeroaren gunean (webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan) edo gurekin harremanetan jarriz. Hala eskatzen dugunean, dagozkion egiaztagiria bidaltzeko konpromisoa hartzen duzu.

Aplikatzekoa den araudiak eskatzen badigu zure egoera pertsonalari buruzko datu gehigarriak biltzea edo zuk dagoeneko eman dizkiguzun datuak eguneratzea, konpromisoa hartzen duzu datu horiek berehala emateko zure bezeroaren gunearen bidez (webgunearen bezeroaren gunea edo NICKEL mugikorrerako aplikazioa) eta, hala eskatzen dugunean, dagozkion ziurtagiriak bidaltzeko.

Konpromiso horiek betetzen ez badituzu, baliteke zure NICKEL kontua itxi behar izatea.

4.3. Zordundutako kopuruen ordainketa zatikatua

Zure NICKEL kontuak zor diren zenbatekoak ordaintzeko saldo nahikorik ez badu, zenbateko hori zatika zordundu ahal izango da saldo eskuragaira iritsi arte.

Orduan, atzerapenik gabe ordainketa bat egin beharko duzu NICKEL kontuan (eskudiruzko gordailua, transferentzia, txartel bidezko ordainketa kontuan...), helbideratutako zordunketa osagarri bat egin eta zor duzun zenbateko osoa ordaindu ahal izateko.

4.4. NICKEL kontu bat ixtea

NICKEL kontua zehaztugabeko epez irekitzen da.

Noiznahi itxi ahal izango duzu NICKEL kontua, inolako arrazoirik gabe, webgunearen bezeroaren gunearen bidez edo posta arruntez edo elektronikoz.

Edozein unetan, baina bi (2) hilabeteko aurreabisua errespetatuz, NICKEL kontua itxi ahal izango dugu, gutun bat edo mezu elektronikoa bidaliz. Aurreabisuko epea amaitzean itzuliko da saldo hartzekoduna, titulartasuneko baliozko ziurtagiria eman diguzun ordainketa-kontu batera edo banku-kontu batera egindako banku-transferentzia baten bidez.

Jokabideko hutsegite larriren bat egiten baduzu edo baldintza orokor eta tarifakoen arabera zure betebeharrak betetzen ez badituzu, berehala itxi ahal izango dugu zure NICKEL kontua, aldeztu aurretik jakinarazi gabe. Saldo hartzekodun oro itzuli egingo da titulartasuneko baliozko ziurtagiria eman diguzun ordainketa-kontu batera edo banku-kontu batera egindako banku-transferentzia baten bidez.

Heriotza edo ezintasun juridikoa nagusituz gero (tutoretzako edo kuradoretzako erregimena) edo NICKEL kontua baimendutako ordezkari baten bidez erabiltzea dakarren edozein neurri hartuz gero, informazioa jakinarazten zaigunean dagokion NICKEL kontua itxiko dugu eta, hala badagokio, dagokion jaraunspenezko espedientea izapidetu ondoren. Balizko saldo hartzekoduna jaraunseleer itzuliko diegu (jaraunspenezko eskubidea egiaztatu eta dagozkion betebeharrak egin ondoren) edo, hala badagokio, horretarako gaitutako pertsona bati.

NICKEL kontua ixteak, arrazoia edozein dela ere, txartela txikitzen behartzen zaitu.

4.5. Jarduerarik gabeko kontuak

Kontu bat jarduerarik gabe dagoela joko da gutxienez hamabi (12) hilabeteko epea igarotzen bada kontu horretan mugimendurik egin gabe (kobrantzak gure aldetik izan ezik) eta bezeroa gurekin harremanetan jarri gabe.

NICKEL erakundeak, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 18.1 artikularekin eta Ondasun higigarriak eta abandonatutako saldoak gordailutzen dituzten finantza-erakundeek komunikatzeko prozedura ezartzen duen azaroaren 7ko EHA/3291/2008 Aginduaren xedapenekin bat etorriz, aurreikusten du

ustez abandonatuta dauden saldoak dituzten kontuen saldoa Estatuko Administrazio Orokorrera transferitzea, hoguei (20) urteko jarduerarik gabeko aldiaren ostean.

Funtsak Estatuko Administrazio Orokorraren jabetzara pasatuko dira azken eragiketarik, bezeroaren azken jakinarazpenetik edo bere heriotza-datatik aldezturik aipaturako epea igarotakoan, dagokionaren arabera. Epe hori amaitutakoan, jarduerarik gabeko kontuaren saldoa Estatuko Administrazio Orokorrari jakinaraziko zaio, eta, positiboa bada bakarrik, transferituko zaio, eta ondoren kontua itxiko dugu.

4.6. Eramangarritasun finantzarioa

Banku-mugikortasuneko doako zerbitzua eskaintzen dugu.

Horri esker, beste banku edo ordainketako establezimendu baten kontutik zure NICKEL kontura edo alderantziz automatikoki transferitu ahal izango duzu aldizkako eragiketen helbideratzea (sartzen diren transferentziak edo ordainagiriaren ordainketa).

Zerbitzu honen bidez, zure banku edo ordainketako establezimendu zaharrean kontua ixteko ere eskatu ahal izango duzu.

Zure bankua edo ordainketako establezimendua utzi eta gurekin eragiketarik egin nahi badituzu, sar zaitez webgunearen bezeroaren gunean eta sakatu "Zure bankua NICKEL erakundearen truke aldatu" aukera.

4.7. Webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioko erabilgarritasun eza

Noizean behin, mantentze-lanak egiten ditugu webgunearen bezeroaren gunean eta NICKEL mugikorrerako aplikazioan.

Mantentze-lan horiek direla eta, baliteke gure zerbitzu guztiak edo batzuk aldi baterako eskuragai ez egotea.

Oso ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, eragiketa horiek iraupen laburra dute eta gauez egiten dira.

Nolanahi ere, ez dugu zerbitzuaren etenaldi horiek bezeroarengan izan ditzaketan ondorioen ardura hartuko.

4.8. Diru-zorro elektronikoak

Baldintza orokor eta tarifako hauen helburua ez da diru-zorro elektronikoko zerbitzuak (Apple Pay, Google Wallet edo beste edozein zerbitzu baliokide) erabiltzeko baldintzak arautzea. Zerbitzu horiei esker, ordainketa-txartelak desmaterializatu ahal izango dituzu gailu bateragarrietan, bai urrutitik, bai kontakturik gabeko ordainketaren bidez transakzioak egiteko. Zerbitzu horiei aplikatu beharreko baldintza zehatzak dokumentu bereizietan zehazten dira, baldintza orokor eta tarifako hauetatik kanpo.

Zerbitzu horiek erabiltzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu bereizita dauden baldintza zehatzak.

4.9. Sekretu profesionala

Gure esku dagoen edo erregistratzen dugun zuri buruzko informazio guztia sekretu profesionalaren betebeharrari lotuta dago.

Hala ere, une bakoitzean aplikatzekoa den indarreko araudian aurreikusitako baldintzetan eta helburuetarako, zuri buruzko informazioa bidal diezaiekegu BNP Paribas taldeko beste sozietate batzuei edo sekretu profesionalari baldintza berdinetan lotuta dauden kanpoko azpikontratistei edo hornitzaileei.

Ildo horretatik, berariaz eta kontratuzko harremanak dirauen bitartean onartzen duzu zuri buruzko datuak bidaltzea:

(i) BNP Paribas taldeko sozietateei, honako xede hauetarako:

- ✦ aurretik aipatu ditugun gure legezko eta arauzko betebeharrak betetzeko;
- ✦ gure legezko interesak asetzeko, hau da, iruzurra kudeatzeko, saihesteko eta antzemateko;
- ✦ baimena eman baduzu, zure beharretara eta nahietara hoberen moldatzen diren BNP Paribas taldeko produktu eta zerbitzu guztietarako sarbidea eskaintzeko.

(ii) BNP Paribas taldetik kanpo:

- ✦ gure izenean eta gure erantzukizunpean zerbitzuak ematen dituzten kanpoko zerbitzuen hornitzaileei eta azpikontratistei (adibidez, zerbitzu informatikoak eta logistikakoak, inprimatzeko, telekomunikazioetako, aholkularitzako, banaketako eta marketineko zerbitzuak);
- ✦ merkataritza-kideei, agente independenteei, bitartekari edo artekari, finantza-erakundeei, merkataritza-onartzaileei, aseguru-etxeei, ordainketa-sistemetako operadoreei, ordainketa-txarteletako jaulkitzaileei edo bitartekari;
- ✦ guk edo BNP Paribas taldeko edozein kidek datuak jakinarazi behar dizkiegun agintari finantzarioei, fiskalei, administratiboei, penalei edo judizialei, edo tokiko edo atzerriko agintari, polizia-agintari, arbitro edo bitartekari, agintari publikoei edo establezimendu edo erakundeei (adibidez, Gordailuen Kutxa Orokorra). Datu horiek jakinarazi beharko ditugu:
 - zuk hala eskatuta;
 - gure defentsa, ekintza edo prozedura bati lotuta;
 - agintari eskudunak guri edo BNP Paribas taldeko edozein kideri lotuta emandako edozein araudi edo gomendio betetzeko;
- ✦ ordainketa-zerbitzuen bitarteko hornitzaileei (ordainketa-kontuei buruzko informazioa), ordainketak hasteko, kontuei buruzko informazioa emateko edo funtsak transferitzeko zerbitzu bat emateko, baldin eta baimena eman baduzu zure datuak bitarteko horri bidaltzeko; eta

lanbide arautu jakin batzuei, hala nola abokatuei, agente judizialei, notarioei edo auditoreei, egoera bereziak hala eskatzen duenean (auziak, auditoretzak, etab.) baita gure aseguru-etxeei edo BNP Paribas taldeko enpresa edo negozioen gaur egungo edo izan daitekeen erosle bati ere.

4.10. Datu pertsonalen babesari

Zure datu pertsonalen prozesamenduaren arduradun garen aldetik, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016/679 Erregelamenduaren (hemendik aurrera, “**DBEO**”) eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, zure datu pertsonalak prozesatuko ditugu honako xede hauetarako:

- NICKEL kontua irekitzeko;
- txartela aktibatzeak, NICKEL kontuari lotutako ordainbidea eduki dezazun;
- NICKEL kontuari lotutako zerbitzuak emateko;
- zuk NICKEL kontua erabiltzeko eta kudeatzeko eta bezeroaren gunean sartzeko (webgunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan);
- txartelarekin eragiketak baimentzeko eta gauzatzeko;
- iruzurra saihesteko eta horren aurka borrokatzeko;
- ordaintetako gorabeherak kudeatzeko;
- txartelari lotutako laguntzako eta aseguruak prestazioak gauzatzeko;
- kapitalen zuriaketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurka borrokatzerako zuzendutako mekanismoa ezartzeko;
- zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko sistema bat ezartzeko eta gure lankidetzako, agintariei jakinarazteko eta zerga-auditoretzak egiteko betebeharrak betetzeko;
- arriskuak kudeatzeko;
- ez ordaintzeak saihesteko;
- gure sozietaterekin dagoen edozein auzi (erreklamazioa, auzi aurreko kontua eta auzi kontua) kudeatzeko; eta
- <https://nickel.eu> webgunean, “Bezeroen eta bezeroak izan daitezkeen datuen babesari buruzko oharra” fitxaren bidez, eskuragai dagoen datu pertsonalen babesari buruzko oharrean aurreikusitako beste edozein xedetarako.

Datu pertsonalak aplikatzeko den gordetzeko epean gordeko ditugu, gordetzeko epea mugatzeko oinarriari jarraituz, zurekin dugun kontratuzko harremanaren esparruan datu horiek prozesatetik eratorritako erantzukizunei erantzuteko. Hori dela eta, epaile eta auzitegiek, ministerio fiskalak edo administrazio publikoek bakarrik izango dute datuetarako sarbidea eta horiek eskura jartzeko aukera, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoaren 32. artikulua arabera.

Zure datu guztiak zure bezeroaren gunean (webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan) egongo dira eskuragai.

NICKEL bezeroa zaren aldetik, informazio hori emango duzu NICKEL kontu bat irekitzeko eskaera aurkeztu duzunean. Gainera, zure NICKEL kontua erabiltzen duzun bitartean, zuri buruzko zenbait datu bilduko ditugu.

Horrela lortutako datuak derrigorrezkoak dira. Datu horiek ematen ez badizkiguzu, ezin dugu bermatu NICKEL kontu bat ireki eta erabili dezakezunik.

Aitortzen duzu datu horiek jakinarazi dizkiguzula eta prozesamenduaren arduradun gisa jarduten dugula eta, hala badagokio, aitortzen duzu gure kide, azpikontratista, hornitzaile eta aurretik deskribatutako prozesamenduaren esparruan lan egin behar dugun beste edozein bitarteko ere bai.

Jakinarazi zaizu, deskribatutako xedeen esparruan, zure datu pertsonalak Europar Batasunekoak ez diren eta babeseko maila baliokidea duten beste herrialde batzuetan kokatutako jasotzaileei jakinarazi ahal izango zaizkiela, transferentzia horiei aplikatzekoa den erregelamenduaren arabera.

Kontratu hau aplikatuz, aitortzen duzu jakinarazi zaizula zure datu pertsonalak lehen aipatutako helburuetarako erabili ahal izango direla.

□ Zure datu pertsonaletara sartzeko eskubidea duzu; beraz, mezu elektronikoko bat idatz diezagukezu datospersonales@nickel.eu edo DPOdeskSpain@bnpparibas.com helbideetara, datuen babesari buruzko informazioa eskatzeko, edo zure bezeroaren gunean (webgunearen bezeroaren gunean edo NICKEL mugikorrerako aplikazioan) datu pertsonalak gordetzeko, itzultzeko, jakinarazteko, aldatzeko edo ezabatzeko eskaerei buruzko informazio guztia kontsulta dezakezu. Era berean, legezko arrazoi bat jakinaraziz gero, prozesamenduari lotutako zure datu pertsonalen prozesamenduaren aurka egin dezakezu, baina kontuan izan behar duzu aurkakotasun horrek NICKEL kontuaren funtzionamendua eragotz dezakeela eta, beraz, bertan behera utzi beharko zenukeela.

Zure eskura dago datu pertsonalen babesari buruzko oharra, <https://nickel.eu> webgunean, "Datuen babesa - Bezeroak eta bezeroak izan daitezkeenak" atalean sartuz.

4.11. Bezeroaren arretarako zerbitzua

FPE erakundeak, Espainiako sukurtsala, bezeroaren arretarako zerbitzua dauka, Finantza-erakundearen bezeroaren arretarako sailei eta zerbitzuei eta bezeroaren defendatzaileari buruzko martxoaren 11ko ECO/734/2004 Aginduaren arabera. Bezeroek zerbitzu horretara zuzendu ahal izango dituzte legez haien alde aitortutako interes eta eskubideekin lotutako kexak eta erreklamazioak, honako bitarteko hauetako edozeinen bidez:

- 917 877 117 telefono-zenbakira deituz (zerbitzu hau astelehenetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 18:00etara egongo da eskuragai).
- 919 053 855 telefono-zenbakira deituz.
- Posta bidez, honako helbide honetara zuzenduta: Paseo de los Melancólicos 14A, 28005 Madrid, "Nickel - Bezeroaren arretarako zerbitzuaren saila" jasotzaileari zuzenduta.
- Posta elektronikoz, honako helbide honetara zuzenduta: reclamaciones@nickel.eu
- <https://support.nickel.eu/hc/es> webgunearen harremanetan jartzeko inprimakiaren bidez.

Bezeroaren arretarako zerbitzuaren ebazpenarekin ados ez badago, edo erreklamazioko edo kexako idazkia aurkeztu denetik aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen epeak igarotzen badira ebazpenik jaso gabe, erreklamatzailerak Espainiako Bankuaren Erreklamazioen Zerbitzura jo ahal izango du, eta ezinbestekoa izango da alde aurretik erreklamazioa aurkeztu izatea FPE erakundearen, Espainiako sukurtsala, bezeroaren arretarako zerbitzuaren aurrean.

Halaber, salerosketa-kontratu batetik edo lineako zerbitzuak bide elektronikoz ematetik eratorritako edozein erreklamazio aurkez dezake auziak linean konpontzeko Europako plataformaren bidez, webgune honetan: <https://webgate.ec.europa.eu/odr/>.

FPE erakundeak, Espainiako sukurtsala, bezeroari defendatzeko erregelamendu bat dauka, eta horretan sar zaitezke www.nickel.eu webgunean eskatuz, bezeroaren arretarako esteka zehatzen bitartez.

Bezzeroaren arretarako zerbitzuari buruzko informazio gehiago kontsulta dezakezu esteka honetan, [https:// nickel.eu/sites/default/files/SAC%20 %20Website%20Final.pdf](https://nickel.eu/sites/default/files/SAC%20%20Website%20Final.pdf), baita Espainiako Bankuaren webgunean ere.

4.12. Kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako borroka. Nazioarteko zigorrak

Kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako borrokari buruzko legezko eta erregelamenduzko xedapenei jarraituz, gure bezeroak ondo ezagutu behar ditugu, eta etengabe zaindu behar dugu haien liburuetan gordailututako funtsen jatorria eta xedea.

Ilido beretik:

- aurrez egindako eragiketekin alderatuta era, zenbateko edo izaera dela-eta ohiz kanpokoak direla iruditzen zaizkigun eragiketei buruzko informazio gehigarria eskatu ahal izango dizugu;
- konpromisoa hartzen duzu transakzio horien testuinguruari buruzko informazio erabilgarri guztia emateko;
- gure aldetik, zure NICKEL kontuan egindako eragiketa guztiak aitortu ahal izango dizkiegu agintari eskudunei.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak, Europar Batasunak, Frantziak, Espainiak eta Ameriketako Estatu Batuek ezarritako mota guztietako nazioarteko zigorrak eta aplikatzekoak diren gainerako zehapeneko araubide guztiak betetzera behartuta gaude (eta, bereziki, FPE erakundeak ordainketa-zerbitzuak sukurtsal baten bidez emateko baimena duen herrialdeek hartutako zigorrak). Ilido beretik, gure politika da, oro har, zigor horiek jaso dituen edozein pertsona, entitate edo erakunderen izenean edo haren mesedetan jarduerarik ez gauzatzea eta horietan ez nahastea, ez zuzenean ez zeharka (zigor ekonomiko, finantzario edo komertzialak, bahiturak, aktiboak eta baliabide ekonomikoak izoztea, pertsona edo erakundeekin edo ondasun edo lurralde jakin batzuekin transakzioak egiteko murrizketak). Testuinguru horretan, behartuta egon gaitzke neurri horien xede izan daitekeen NICKEL kontuaren zordunketa edo kreditu bidezko ordaintzeko eragiketa bat etetera, atzera botatzera edo blokeatzera, eta NICKEL kontua ixtera.

4.13. Aplikatzekoa den legeria

Kontratu hau Espainiako legediak bakarrik arautuko du.

1. eranskina – NICKEL PARTIKULARRAK - TARIFEN BALDINTZAK ETA MUGAK

Nickel kontuaren mantentzea	Urtean 25 euro
Urrutiko bankuko zerbitzuetarako harpidetza (Internet, telefono finkoa, SMS eta abar)	Doakoa (komunikazioko kostuak edo Interneterako sarbidea hornitzeko kostuak izan ezik)
Kontuaren egoerari buruzko hileko SMS bidezko alertetako zerbitzurako harpidetza	Gehienez urtean 60 SMS: doakoa Euro bat 10 SMS gehigarriko
Diru-sartzea eskudirutan edozein NICKEL puntutan (gordailuak)	Gordailututako zenbatekoaren % 2a Kontua aktibatzen den unean egiten den lehenengo gordailua: doakoa NICKEL METAL txartela: doakoa
Ordainketa NICKEL kontu batean banku-txartelaren edo ordainketa-txartelaren bidez	Gordailututako zenbatekoaren % 2a
Sartzen den transferentzia	Doakoa
Eskudirua ateratzea edozein NICKEL puntutan	0,5 euro ateratzeko NICKEL METAL txartela: doakoa
Nazioarteko ordainketa-txartel batekin beste erakunde bateko kutzazain automatikoetan eskudirua ateratzea (eurotan, koroa suediarretan eta leu errumaniarretan)	<u>Euro esparruan (Espainia barne):</u> <ul style="list-style-type: none"> ○ NICKEL txartelarekin, NICKEL PREMIUM txartelarekin, MY NICKEL txartelarekin eta Nickel METAL txartelarekin: kutzazain automatikoaren jabe den bankuaren dagokion komisioa** ○ Global Alliance / Global Network* sareetako kutzazainetan: kutzazainaren jabe den bankuaren komisio gehigarririk gabe
Nazioarteko ordainketa-txartel batekin beste erakunde bateko kutzazain automatikoetan eskudirua ateratzea euroak, koroa suediarrek eta leu errumaniarrak ez diren monetetan	<u>Euro esparrutik kanpo:</u> <ul style="list-style-type: none"> ○ NICKEL eta MY NICKEL txartelarekin: 2,50 euro (+ kutzazain automatikoaren jabe den bankuaren dagokion komisioa)** ○ NICKEL PREMIUM txartela: 1,50 euro (+ kutzazain automatikoaren jabe den bankuaren dagokion komisioa)** ○ NICKEL METAL txartela: kutzazain automatikoaren jabe den bankuaren dagokion komisioa** ○ Global Alliance / Global Network* sareetako kutzazainetan: kutzazainaren jabe den bankuaren komisio gehigarririk gabe

<p>Saltokietan edo urrutitik erosketak eta zerbitzuak txartelarekin ordaintzea</p>	<p><u>Eragiketa eurotan, koroa suediarretan edo leu errumaniarretan:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ○ NICKEL, MY NICKEL, NICKEL PREMIUM eta NICKEL METAL txartelarekin: doakoa <p><u>Eragiketa euroak, koroa suediarrek edo leu errumaniarrek ez diren monetetan:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ○ NICKEL txartelarekin eta MY NICKEL txartelarekin: euro bat ordainketa-eragiketako ○ NICKEL PREMIUM eta NICKEL METAL txartelarekin: doakoa
<p>SEPA transferentzia estandar bat jaulkitzea</p>	<p>Doakoa</p>
<p>SEPA berehalako transferentzia bat jaulkitzea</p>	<p>Doakoa</p>
<p>Helbideratutako zordunketak (SEPA zordunketa zuzena agintzeagatiko gastuak)</p>	<p>Doakoa</p>
<p>Helbideratutako zordunketak (SEPA zordunketa zuzena ordaintzeagatiko gastuak)</p>	<p>Doakoa</p>
<p>Zordunketa-txartel bat ematea (baimen sistematikoa duen nazioarteko ordainketa-txartela)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ NICKEL txartela: doakoa ○ NICKEL PREMIUM txartela: urtean 30 euro ○ MY NICKEL txartela: 10 euro txartela amaitu arte ○ NICKEL METAL txartela: urtean 80 euro
<p>Diruaren faltagatiko helbideratzeko aginduaren errefusa</p>	<p>10 euro errefusatutako helbideratzeko agindu bakoitzeko, errefusatutako helbideratzeko aginduaren zenbatekoraino</p>
<p>Bahiturako izapideagatiko komisioa</p>	<p>Espedienteko: bahitutako zenbatekoaren % 10a, gehienez 35 eurora arte</p>
<p>Dokumentuak bilatzeagatiko komisioa</p>	<p>Kontuaren titulartasuneko ziurtagiri bat igortzea NICKEL puntu batean: euro bat Txartela baten kode pertsonal eta isilpeko berri bat igortzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ NICKEL, MY NICKEL eta NICKEL PREMIUM txartela: euro bat ○ NICKEL METAL txartela: doakoa
<p>Txartela ordezkatzea galduz, lapurtuz, hondatuz, akastuna izanez, baliogabetuz edo hiru kode oker sartu ondoren blokeatuz gero</p>	<p>Ordezko oinarrizko txartel bat ematea NICKEL puntu batean: 12,50 euro</p> <p>MY NICKEL edo NICKEL PREMIUM txartel berri bat igortzeko eskatzea webgunearen bezeroaren gunearen edo NICKEL mugikorrerako aplikazioaren bidez: 10 euro</p>

	Nickel METAL txartel berri bat igortzeko eskatzea webgunearen bezeroaren gunearen edo NICKEL mugikorrerako aplikazioaren bidez: 50 euro
--	--

**Global Alliance / Global Network: munduko zenbait bankuren arteko hitzarmena, atzerriko kutxazain automatikoen sarearen inguruan.*

***Aurkeztutako tarifak FPE erakundeak ezarritakoak dira. Beste entitate batzuek trukeko komisioak edo beste gastu batzuk ezar ditzakete.*

MUGAK

Zure NICKEL kontua irekitzeko lehenetsitako muga batzuk ezartzen dira, eta jarraian adieraziko dira. NICKEL kontua behin betiko aktibatzen denetik ezarriko dira (begiratu: 1.2. atala, "Nola ireki NICKEL kontu bat"). Muga horiek aldatu ahal izango dira jakinarazten diguzun informazioaren arabera edo 3. ataleko, "Nola ordaindu eta jaso ordainketak NICKEL kontuarekin", xedapenekin bat etorritik.

Ateratzeko mugak txartelaren arabera	
Lehenetsitako muga	NICKEL eta MY NICKEL txartela: astean 300 euro NICKEL PREMIUM txartela: astean 500 euro NICKEL METAL txartela: astean 700 euro

Ordaintzeko mugak txartelaren arabera	
Lehenetsitako muga	NICKEL eta MY NICKEL txartela: hilean 1 500 euro NICKEL PREMIUM txartela: hilean 2 000 euro NICKEL METAL txartela: hilean 2 500 euro
Gehieneko muga	Hilean 5 000 euro

Ordaintzeko mugak transferentziaren arabera	
Ateratzen den SEPA transferentzia estandarra	Hilean 30 000 euro
Ateratzen den SEPA berehalako transferentzia	Hilean 1 000 euro

*Nickel puntuetan eskudirua sartzeko eta NICKEL kontuan banku-txartel edo ordainketa-txartel bidez ordaintzeko muga hilabetean pilatutako **950 eurokoa** izango da.*

2. eranskina - UKO EGITEKO INPRIMAKIA

Uko egiteko epeari dagokion inprimakia (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bategina eta beste lege osagarri batzuk onartzen dituen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 102. artikuluan aurreikusita).

Uko egiteko prozedura:

- 1) Bidali jaso izanaren adierazpena daraman gutun ziurtatua **Financière des Paiements Électroniques SAS., Espainiako sukurtsala** jasotzaileari, honako helbide honetara:
FPE – NICKEL
Paseo de los Melancólicos 14 A, 28005 Madrid
- 2) Beranduenik ere, kontratua sinatu (edo baldintza orokor eta tarifakoak onartu, berdin dio) eta hamalau (14) egunera.
- 3) Irakurtzeko moduan eta osorik beteta.

Uko egite hori baliozkoa izateko, hamalau (14) eguneko epea amaitu baino lehen bidali behar da, irakurtzeko moduan eta osorik beteta.

KONTRATUAREN UKO-EGITEA

Behean sinatu duenak, _____ (1) jaunak/andreak, uko egiten dio _____ (2) datan FINANCIÈRE DES PAIEMENTS ÉLECTRONIQUES SAS, ESPAINIAKO SUKURTSALA ("NICKEL") erakundearekin sinatutako kontratuari.

_____ (e)n eginda, _____ (e)(a)n, bi (2) ale originaletan, eta horietako bat goian adierazitako FPE erakundearen helbidera itzuli beharko da.

Titularraren sinadura eta, aldeztatik, "irakurrita eta onartuta" aipamena.

1. *Bezzeroaren izen-abizenak.*
2. *Kontratuari uko egiteak kontratua guztiz deuseztatzea ekarriko du.*

FINANCIÈRE DES PAIEMENTS ÉLECTRONIQUES, Espainiako sukurtsala, Madrilgo merkataritza-erregistroan erregistratuta dago 2019ko azaroaren 8tik, 39762. liburukian, 0. liburuan, 71. folioan, 8. sekzioan, M-706517 orrialdean. Helbide soziala Paseo de los Melancólicos, 14ª, 28005 Madrid helbidean dauka. IFK: W2503947J.